



ONDARE GARAIKIDEA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



ONDARE GARAIKIDEA

ONDAREAREN KONTZEPTUAREN BILAKAERA ETA KUDEAKETA BERRIA

Aurkezpena 3

Ondarea, bilakatzen ari den kontzeptua. Ikuspegi tradizionaletik ondare berrietara 4

1. KONTZEPTUALIZAZIO TRADIZIONALA 4
2. BILAKAERA 5

Erronka berriak ondarearen arloan 9

3. SORTZEN ARI DEN ONDAREA 9
4. ONDAREAREN KONTZEPTUALIZAZIO INTEGRALA 12

Babesteko tresnak eta baliabideak 14

5. BABESTEKO BEHARRAK 14
6. BABES-TRESNAK 16
7. ONDARE GARAIKIDEA EAEN 21
8. INSPIRAZIO-ELEMENTUAK 25

Ondorioa 28

Bibliografia 29

Eranskinak 30



Aurkezpena

Etengabe berrikusten ari dira ondarearen kontzeptua eta hura osatzen duten elementuak. Materialarekin eta memoriarekin eta balio historiko eta monumentalarekin lotutako ideia tradizionalaren aurrean, materialtasunetik eta antzinatasunetik aldentzen duten ikuspegiak agertzen ari dira. Hala, azken urteotan, dimentsio garaikidea gehitzen joan zaio hala ondarearen kontzeptuari berari nola haren kudeaketari.

Hasiera batean, 1972an, UNESCOren *Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Hitzarmenean*, ondasun ukigarriekin identifikatu zen ondarea. Geroago, 1989an, ondare ukiezinen kontzeptuari ateak ireki zizkion *Kultura Tradizionala eta Herritarra Babesteko Gomendioak*. Gaur egun, oztopo horiek gainditu ditu ondarearen kontzeptuak, eta garaikidetasunarekin lotutako adierazpen eta denborazkotasun berriak gehitu ditu. Horren harira, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak, zioen azalpenean, hauxe dio berariaz: "ondarearen kontzeptua bera etengabe eraikiz doa, eta hura osatzen duten elementuak ere mudakorrak dira eta ekarpen berriak hartzeko irekita daude".

Arte-adierazpen eta joera artistiko berriak sortu izanak eta teknologia digitalen bilakaerak premia berriak sortu dituzte ondarea aintzatesteko orduan, bai eta aukera berriak ere ondare hori zaintzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko. Horrek esan nahi du aintzat hartu beharreko erronka berriak sortu direla.

Zer irizpide hartzen dira kontuan ondare garaikidea baloratzeko eta kontserbatzeko? Zer kontserbatu daiteke eta zer kontserbatu behar da? Justifikatua al dago ondare berriena galtzen ari delako sententzia? Nola eman dakioko balioa? Zer ari da egiten?

Azterlan honek arrazoi batzuk eman nahi ditu gai horiei buruz, datuak eta orientabideak eskaini alor horretan garrantzitsuak diren erakundeentzat, bi ikuspegitatik begiratuta:

- Gogoeta egitea hainbat konturen inguruan: ondare garaikidetzat zer hartzen den, ondare hori halakotzat jotzeko arazoa historian gertukoa izateagatik, ondare hori kontserbatzeko gomendioak, bizimoduak islatzeari dagokionez zenbateko garrantzia duen, memoriarekin duen lotura eta horrek dakartzan kudeaketa-zailtasunak, etab.
- Gogoeta egitea ondare garaikidearen kontserbazioari buruz, kontserbazio-premia eta -erronka berriak nahiz dauden babes-elementuak eta etorkizuneko praktikak inspira ditzaketen elementu berritzaileak aztertuta.

Kulturaren Euskal Behatokiaren ondare garaikideari buruzko lehen txosten honetan, ikuspegi orokorretik begiratuta aztertuko ditugu ondarearen arloko erronka eta definizio berriak, eztabaidarako ideiak zentratzen, sortzen eta ekartzen lagunduz. Ondarearen kudeaketa orokorrean jarri da arreta, eta ez dira azertu, esate baterako, museoiei, artxiboei, ondare bibliografikoari eta abarri lotutako araudiak eta prozedura sektorialak.



Ondarea, bilakatzen ari den kontzeptua. ikuspegi tradizionaletik ondare berrietara

1. KONTZEPTUALIZAZIO TRADIZIONALA

Ondare garaikidearen kontzeptua definitu eta aztertu ahal izateko, garrantzitsua da, lehenik eta behin, kontzeptua bere kontzeptualizazio klasikoenetik hartzea. Interes artistiko, historiko eta kultural bereziki jotzen diren ondasunak babesteko, kontserbatzeko eta balioesteko balio du ondareak, eta gure garairaino iritsi diren eta duten balioagatik aintzatespen berezia merezi duten ondasunak babestearekin lotu izan da tradizionalki. Alde horretatik, ondasunaren bikaintasun-ideiarekin zuzenean lotuta dago haren balioa.


Gaur egun, gaituta dago kultura-ondare historikoaren kontserbazioari buruzko eztabaida, eta nazioartean akordio orokorra dago, bai babesteko beharrari buruz, bai zer ondasun kontserbatu behar diren erabakitzeko, UNESCOk izan duen bitartekaritza-lanari esker. Adostasun horretatik haratago, eztabaida berriak sortzen ari dira gaur egun egiten ari diren ekoizpen artistikoei buruz eta obra horiek guztiak kontserbatu ala ez erabakitzeko beharrari buruz. Hain zuzen ere, eztabaida horretan sortu da ondare garaikidearen kontzeptua, oraindik definitzen ari dena.

UNESCO erakundea arduratu da munduko ondarea zaintzeaz eta definizio- eta taxonomia-irizpideen arloan adostasunak sortzeaz. UNESCOren arabera, tradizionalki ulertu izan den bezala, ondarea da **“iraganetik jaso dugun ondare kulturala, unean bertan bizi duguna eta etorkizuneko belaunaldiei utziko dieguna”**. Natura-guneekin, monumentuekin eta balio kultural handiko objektu-bildumekin lotu da kultura-ondarearen definizio zabal hori, baina jasotako adierazpen biziak ere biltzen ditu, hala nola ahozko tradizioak, gizarte-usadioak, jai-ekitaldiak, ezagutzak eta praktikak, artisautzarekin lotutako jakintzak eta teknikak, etab.

Tradizioz, kultura-ondarearekin lotu izan da ondarearen kontzeptua, eta, zehazkiago, balio eta denbora historikoarekin. Batez ere UNESCOk aldarrikatu dituen nazioarteko hitzarmenek, gutunek eta jarraibideek gidatu dute kontzeptu horren bilakaera-prozesua (hurrengo atalean jaso), eta, gaur egun, oso onartua dago ondarearen banaketa, hau da, ondare naturala da paisaiari eta naturari lotutakoa, eta kultura-ondarea da gizakiaren ekintzari lotutakoa. Era berean, materialaren eta immaterialaren artean banatu da kultura-ondarea, ondare ukigarria eta ukiezina bereiziz.

Geroago ikusiko dugunez, ondareari buruz gaur egun onartzen den taxonomia (1. grafikoan ikus daiteke) landu, definitu eta zehaztu egin da urteek aurrera egin ahala, batez ere UNESCOk proposatutako gutunen eta hitzarmenen bidez. Gaur egun, oro har, honela sailka daiteke munduko ondarea:

1. grafikoa: Ondarearen sailkapen tradizionala



Iturria: UNESCO

2. BILAKAERA

Ondarearen kontzeptualizazioa eta ondarea osatzen duten elementuak nabarmen aldatu dira urteen poderioz. Gizartearen bilakaerak, arte-adierazpen berriak agertzeak eta digitalizazioak ekarri duen iraultzak erronka berriak sortu dituzte, eta horiek, ezinbestean, zalantzan jarri dute kultura-ondarearen definizio zurrun hori.

UNESCOren arabera, funtsezkoa da ondarea kontserbatzea eta balioestea, kulturen eta identitateen balioa etengabe handitzen laguntzen baitu, eta esperientziak, gaitasunak edo ezagutzak transmititzeko zein belaunaldien artean sormena eta berrikuntza inspiratzeko balio duen lotura baita. Ondareak, kontzeptualizazio horretatik abiatuta, garrantzi handia hartzen du gizartearentzat; izan ere, kultura-aniztasuna eskuratzea eta ulertzea sustatzen du, eta kapital soziala aberasten du, banaka eta taldeka lurralde bateko kide izatearen sentimenduak indartuz eta gizarte-kohesioa sustatuz.

Egia esan, kultura-ondarearen balorazioa desberdina da eskualdeen eta une historikoen artean, eta, horregatik, askotan zaila da ondare hori kontserbatzea. Halatan, nazioarteko hainbat organismo eta erakunde, hala nola UNESCOk, Europar Batasunak edo ICOMOSek, ondarea kontzeptualizatzeko oinarriak finkatu dituzte, eta ondare-balioa duen hori babesteko eta kontserbatzeko bidean aurrera egiteko gutxieneko komuna bilatu dute maiz.

Nazioarteko erakunde horiek onartutako hitzarmenetan, gutunetan, adierazpenetan edo gomendioetan ageri dira ondarearen kontzeptuan izandako aldaketak. Horietako bakoitzaren ekarpen nagusiei erreparatuta, ikus dezakegu zein bilakaera izan duen ikuspegi historiko mugatuenetik hasi eta ikuspegi berri zabalduetara.

→ **Atenasko gutuna** da, 1931n egindako Konferentziazatik sortua, monumentu artistikoen eta historikoen kontserbazioa bultzatzeko aurkeztu zen lehen dokumentua, eta arkitektura eta hiri-ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko alderdi garrantzitsuenetako batzuk jasotzen ditu.



1954an, eta Bigarren Mundu Gerraren garaian kultura-ondarea masiboki suntsitu ondoren, → **Gatazka Armatuaren kasuan kultura-ondasunak babesteko Hagako Hitzarmena** onartu zen, herri bakoitzeko kultura-ondarerako garrantzitsuak diren kultura-ondasun higigarriak eta higiezinak babesteari begira. 80ko eta 90eko hamarkadetako gatazketan kultura-ondasunak suntsitzearen ondorioz, hitzarmen hori berriz formulatu zen, eta → **Hagako Hitzarmenaren bigarren protokoloa** onartu zen 1999an.

1964ko → **Veneziako gutunean** onartu ziren "monumentu historikoa", "kontserbazioa" eta "zaharberritzea" definizioak, obrak eta monumentu fisikoak nahiz haien testigantza historikoa babesteko. Gutun horren ekarpenetako bat da kultura-ondarearen ikuspegi unibertsalista, ondare hori kontserbatzeko erantzukizun globala eta kolektiboa azpimarratzen baitu.

Ondarea kontserbatu beharreko elementu multzo gisa markatu eta kontzeptualizatzear gain, haren inportazioa eta esportazioa ere arautu zituzten hitzarmenek. 1970ean onartu zen → **Kultura-ondasunen legez kanpoko inportazioa, esportazioa eta jabetza-transferentzia debekatzeko eta eragozteko hartu behar diren neurriei buruzko Hitzarmena**, ondare-ondasunen trafikoa arautzeko, eta kultura-ondasuntzat zer hartu behar den ere adierazi zuen definizioan.

→ **Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko Hitzarmenak** (UNESCO, 1972) eragin handia izan zuen ondarea babesteko neurrien kontzeptualizazioan eta bateratzean, eta gaur egun oraindik erabiltzen dira hartan adostutako definizioak.

Kultura-ondareaz gain, natura-ondarea ere aintzatetsi eta balioetsi zen, hau da, giza ekintzaren mende ez dagoen ondarea, duen balio estetikoak, zientifikoa edo ekologikoa eta bikaintasuna aintzat hartuta definitzen dena.

Hitzarmen horren arabera:

Honako hauek sartzen dira **kultura-ondarearen** barruan:

- Monumentuak: arkitektura, eskultura- edo pintura-lan monumentalak, izaera arkeologikoko elementuak edo egiturak, inskripzioak, haitzuloak eta elementu-multzoak, historiaren, artearen edo zientziaren ikuspegitik aparteko balio unibertsala dutenak.
- Multzoak: eraikin-multzoak, bakanak edo elkarrekin daudenak; haien arkitekturak, batasunak eta paisaian integratzeak aparteko balio unibertsala ematen badie historiaren, artearen edo zientziaren ikuspegitik.
- Lekuak: gizakiaren lanak edo gizakiaren eta naturaren baterako lanak, bai eta ikuspegi historiko, estetiko, etnologiko edo antropologikotik begiratuta aparteko balio unibertsala duten gune arkeologikoak ere.

Eta honako hauek sartzen dira **natura-ondarearen** barruan:

- Formazio fisikoek eta biologikoek edo formazio horien multzoek eraikitako monumentu naturalak, estetikaren edo zientziaren ikuspegitik aparteko balio unibertsala dutenak.
- Formazio geologikoak eta fisiografikoak eta galtzeko arriskuan dauden espezieen habitata osatzen duten eremu hertsiki mugatuak, estetikaren edo zientziaren ikuspegitik aparteko balio unibertsala dutenak.
- Hertsiki mugatutako leku naturalak edo eremu naturalak, zientziaren, kontserbazioaren edo edertasun naturalaren ikuspegitik aparteko balio unibertsala dutenak.



Hitzarmen horren ondoren, ondare arkitektonikoa babesteari eta aintzatesteari buruzkoak izan ziren egindako adierazpenak eta gutunak (→ **Ondare Arkitektonikoaren Europako Gutuna**, → **Amsterdamgo Adierazpena**, edo → **Granadako Hitzarmena**), bai eta multzoak, hiri historikoak edo esanahi kulturalerako lekuak babesteari buruzkoak ere (→ **Nairobi Adierazpena**, → **Florentziako Gutuna**, → **Toledoko Gutuna**, edo → **Burrako Gutuna**). Denborak aurrera egin ahala, ondarearen kontzeptua eta hura kontserbatzeko premiak aldatu egin ziren, eta elementu zehatzak babestetik gero eta integratuago dauden multzoak eta espazioak babestera pasa ziren. Ondarearen ikusmolde berritzaileari dagokionez gauza berria denez, bereziki esanguratsua da → **Narako Gutuna**, kultura- eta ondare-aniztasunaren ideia eta horiek giza garapenaren funtsezko elementu gisa aktiboki sustatzeko beharra jasotzen baititu. Aniztasun horren ondorioz, ezinezkoa da balioa irizpide finkoen arabera esleitzea, eta horrek esan nahi du dagokien testuinguruari lotuta daudela ondare-ondasunak.

XXI. mendearen hasieratik hasi zen ondarearen kontzeptua berrikusten, aurretik hain kontuan hartu ez ziren alderdiak sartuz. 2001eko → **Paisaiaren Europako Hitzarmenak**, → **Xi'ango Adierazpenak** edo 2005eko → **Enameko Gutunak** azaldu zuten paisaia, ingurunea eta ondare-elementuen inguruko lekuak babesteko kezka, hiru elementu bereizezin aintzat hartuta: lurraldea, ondarea eta paisaia. 2003ko → **Nizhny Tagileko Gutunak** agerian utzi zuen industria-ondare osoa babestearen garrantzia, bai agerpen ukigarrietan bai ukiezinetan, duen balio historiko, teknologiko, sozial, arkitektoniko edo zientifikoagatik. Gainera, beste elementu batzuk ere ondareztat hartu ziren eta, ondorioz, babesa eman zitzaien, hala nola → **urpeko kultura-ondarea** edo, aurrerapen handienetako bat, ondare immateriala.

Ondare immaterialaren babesa aurreratua zegoen 1989an → **Herri-kultura eta Kultura Tradizionala Babesteko Gomendioa** onartu zenean, eta finkatu egin zen → **Kultura-ondare Immateriala Babesteko Hitzarmenarekin**. Hitzarmen horrek behin betiko bereizi zituen kultura-ondare materiala eta immateriala, ulertuta kultura-ondare materiala direla monumentuak, artelanak, hiri-multzoak, eraikinak eta abar, hau da, elementu ukigarriak; eta kultura immateriala, berriz, tradizioak, hizkuntzak, egiten jakitea, arte-adierazpenak, herri-adierazpenak eta abar, hau da, elementu ukiezinak, eta haiek kontserbatzeko eta babesteko beharra aintzatetsi zen.

Kultura-ondare Immateriala Babesteko Hitzarmenaren arabera:

Honela definitu da **ondare immateriala**:

Komunitateek, taldeek eta, zenbait kasutan, norbanakoek beren kultura-ondareztat hartzen dituzten usadioak, irudikapenak, adierazpenak, ezagutzak eta teknikak –haiekin loturiko tresnekin, objektuekin, gailuekin eta kultura-espazioekin batera-. Kultura-ondare immaterial hori belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, eta komunitateek eta taldeek etengabe birsortzen dute, ingurunearen, naturarekiko duten elkarreraginaren eta historiaren arabera, nortasun- eta jarraitutasun-sentimendua emanez eta, hartara, kultura-aniztasuna eta giza sormena errespetatzen lagunduz.

Arau-berrikuspen honen bidez ikus dezakegunez, ondare-balioaren ideia nabarmen aldatu da denborarekin, eta, gero eta gehiago, materialtasunarekin eta antzinatasunarekin lotutako irizpideak ez dira bakarrak elementu bat ondareztat hartzeko. Gaur egun, kultura-adierazpen garaikideei balioa emateko beharrak berrikuspen sakona eskatzen du, askoz ere inklusiboagoa, erronka berriei egin behar baitzaie aurre.

Ondarearen kontzeptuak etengabe eboluzionatu du XX. mendearen hasieratik gaur egunera arte. Hala ere, ondare garaikidearen definizio argi eta zabal onarturik ez dagoenez, zailagoa da ondare-mota hori, oro har, babestuko duten ekimenak gauzatzea.



Lehen esan bezala, garaikidetasunak berekin dakar ondareari buruzko denbora- eta gizarte-ikuspegirik eza, eta horrek zaildu egin dezake babestu edo deklaratu beharreko ondasunaren balioa aintzatestea. Ondarea hertsiki lotuta dago memoriaren kontzeptuarekin, baina denboraren distantziarik ez izateak eta ondare garaikidea memoria biziaren parte izateak sarritan zaildu egin dezake ondasunaren balorazio egokia egitea. Testuinguru horretan garrantzi handia hartzen du espezialisten iritzi tekniko eta adituak.

Tokiko gobernuen, eskualdeen eta estatuen esku dago ondarea eta, bereziki, ondare garaikidea babesteko erantzukizuna. Lurraldeek ekimen aktiboa behar da ondare-elementuak ezagutzeko eta inbentarioan sartzeko eta elementu horiek babesteko eta kontserbatzeko neurri egokiak hartzeko, eta, alde horretatik, norabide horretara bideratua dago erabat ondareari buruzko euskal legeria eguneratzea.

Indarrean dagoen EAEko legeria 2019koa da, eta ondare immaterialaren edo industrialaren garrantzia jasotzen du jada, bai eta ondarearen kontzeptualizazio integral berrien garrantzia ere, ingurunea aintzat hartzen dutenak eta zabalkunde eta gozamen publikoaren alde egiten dutenak.



Erronka berriak ondarearen arloan

Ondarea arautzeko lehen ahaleginek definizio operatiboa ekarri zuten, mundu mailan babes- eta kontserbazio-irizpideak bateratzea ahalbidetu zuena. Hala ere, gizartearen eta esparru kultural, artistiko eta teknologikoaren bilakaerak berriro ireki du ondareari, eta, ondorioz, ondarearen kontserbazioari eta hedapenari buruzko eztabaida.

Lehenengo eduki-multzoan ikusi den bezala, ondarearen ideia eboluzionatzen joan da denborak aurrera egin ahala. Halatan, gaur egun, erronka berriei aurre egin behar zaie ondarea aintzat hartu, babestu, kontserbatu eta hedatzearen arloan, eta hori erabakigarria izango da ondare garaikidea definitzeko eta taxutzeko.

3. SORTZEN ARI DEN ONDAREA

Ondare garaikidea definitzen duten alderdi edo erronka garrantzitsuenetako bat da sortzen ari dela, eta, beraz, denbora-mugaren, adostasunaren eta gizarte-balioaren ondoriozko erronkei egin beharko die aurre.

Denborazkotasunari dagokionez, oraintsuko garaiekin lotua dago ondare garaikidea, azken hamarkadetan egindako kultura-adierazpenak babestera, kontserbatzera eta hedatzera bideratua baitago. Hala ere, ondare arkitektonikoari dagokionez batez ere, badago halako nahasmen bat garaikidea eta modernoa terminoen erabileran, baita nazioarteko erakundeek, esaterako UNESCOk, aldarrikatutako adierazpenetan eta gutunetan ere. Lan honetan XX. eta XXI. mendeetara mugatuko da garaikidea terminoaren erabilera.

Tradizioz antzinatasunari eta historiari lotuta egon da ondarea, baina gero eta nabariagoa da babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman behar direla berriki sortutako adierazpen artistikoak eta kulturalak ere. Hala eta guztiz ere, zailtasun handi bat sortzen da hor, denboraren distantziarekin errazagoa baita ondare izendatu beharreko horren ondare-balioaren gainean gizarte-adostasuna izatea.

Gaur egungo ekoizpenak kontserbatzeko eta ondare izendatzeko beharra argi eta garbi ikusten da, esate baterako, arkitekturan edo industria-ondarean; izan ere, badira suntsitu diren eraikinak eta ondarea, modernitatearen erreferente zirenak, bere garaian ez zitzaielako balio hori eman.

Memoriari dagokionez, eta denborazkotasunari buruzko gogoetekin oso loturik, ondare garaikidea XX. eta XXI. mendeetan zehar, hau da, oso garai berrian, egindako produkzioekin lotzeak esan nahi du sarritan oraingo memoriaren parte dela ondare hori eta harekin lotura estua duten egungo komunitateak inplikatzeko dituela. Memoria biziarekin duen lotura hori bada ere ondare garaikidearen ezaugarri nagusietako bat, kudeatzeko zailtasunak ekar ditzake, ondare izendatu daitezkeen ondasun jakin batzuekin duen inplikazioagatik.



Memoria funtsezko kontua da kultura-ondareari buruzko hausnarketan, eta, ondare garaikideari dagokionez, oso faktore garrantzitsua da. Horren harira, ondarearen kontserbazioan parte har dezan komunitatea lotzea, teknikarien eta adituen iritziak alde batera utzi gabe, horixe da kontuan hartu beharreko erronketako bat.

Aniztasunari eta kantitateari dagokienez, bikaintasunarekin eta monumentalarekin lotutako ondarearen kontzeptuaren eredu elitista aldatzen ari da beste eredu askoz ere ireki eta inklusiboagora, barne hartuta landako eta hiriko mundua, langile-klaseak eta klase ertainak. Horrez gain, kontuan hartzen badugu XX. mendean izandako eraikuntza-jarduera izugarria, bestelako ikuspegi batekin kudeatu behar da ondarea, askoz ere ikuspegi inklusiboagoarekin, hain zuzen ere. Ohiko gauzetara, egunerokora eta industriako elementuetara zabaltzeko premia horrek erronka handiak sortzen ditu; izan ere, ezinezkoa da dena zaintzea. Gaur egun ekoizpen handia egiten denez, ezinbestean eztabaidan jarri behar dugu zer izendatu behar den ondare eta zer ez. Gainera, materialak (hormigoia, elementu aurrefabrikatuak...) eta erabilitako teknika industrialak (masa-ekoizpena, denboraren joanarekiko kalteberagoa) babesteko zailtasunak gehitu behar zaizkio horri guztiari.

Genero-ikuspegiari dagokionez. Garrantzitsua da azpimarratzea aipatutako irekitze horrek eguneroko bizitzako alderdiak kontuan hartzea dakarrela, ondarearen ikuspegi tradizioaletik ikusezin bihurtu baitira alderdi horiek. Ez da ahaztu behar gizartearen ispilua dela ondarea. Izan ere, jarraitu egin da produktiboaren-industrialaren nolabaiteko ikuspegia lehenesten, etxe-bizitegi ikuspegiaren gaitetik. Hala ere, azken urteotan, balioa hartu dute emakumeen unibertsoarekin zerikusi handiagoa duten ondasunek, hala nola etxearekin, zaintzarekin eta, oro har, bizitegi-arkitekturarekin loturikoek, duela gutxi arte ez baitziren aintzat hartzen. Izan ere, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legeak berariaz dio: "ondareztat aintzatesten da historikoki ikusezinak izan diren talde sozialen beste baliabide, jaraunspen eta jakintza batzuen multzoa, esaterako, emakumezkoena".

Adostasun eta balio sozialari dagokienez, ondare-ondasunak identifikatzeaz arduratzen diren adituen ezagutzan oinarritutako baloraziotik erabiltzen ari den ondarearen, egunerokoa eta gainera ugaria den ondare horren balorazio sozialera pasa behar da eta hori zaila da berez. Askoz ere errazagoa da apartekoa eta bakana den zerbaiten balioa identifikatzea gurekin bizi diren elementuen balioa identifikatzea baino. Kultura-ekoizpen edo -adierazpen jakin bati emandako balio soziala irakurtzeko aukera emango duten irizpideak definitu behar dira, jokoan sar daitezkeen irizpideen aniztasuna kontuan hartuta betiere. Hala, kultura-ekoizpenak edo -adierazpenak egungo gizartearen adierazgarri izatea, erabilitako teknikei, elementu bereizgarriei, irudikatutako balioei, berrikuntzari eta abarri dagokienez, adierazgarria izan daiteke ondare garaikidearen balioari begira adostasuna bideratzeko orduan.

Ondare garaikidea sortzen ari den ondarea da, eta, ondorioz, are zabalagoa, malguagoa eta dialektikoagoa da kontzeptu berria, eta oraindik amaitu ez den definizio-prozesuan dago, zalantzarik gabe. XX. mendeko azken hamarkadetan, berrikusi eta sakon berritu dira kultura-ondarera egindako hurbilketa kontzeptualak, eta funtsezko bi elementu nabarmendu dira:

Ondarearen definizio dinamikoa hartzea.

Lehen esan dugun bezala, etengabeko eraikitze-prozesuan dago ondare garaikidea eta horrek esan nahi du haren definizioak dinamikoa izan behar duela nahitaez, hau da, sortzen diren elementu eta adierazpen berrietara egokitzeko gai izan behar du.

Ondarearen ikuspegi inklusiboa.

Ondareztat har daitezkeen elementu berriak sartu behar direnez, eta ekoizpen garaikidea oparora denez, haren kudeaketak irekia eta inklusiboa izan behar du gaur egun, jakinik ez dela batere erraza ondare hori behar bezala eta egoki kudeatzea. Begirada inklusibo horrek aintzat hartzen du emakumeek gizarteari egiten dioten ekarpena ikusaraztea eta balioestea.



Balio kulturala aintzatestea.

Elementu bat ondare gisa definitzeko funtsezko elementuetako bat da zenbateko balio kulturala ematen zaion. Alde horretatik, garrantzitsua da baloratu behar diren alderdi guztiak aintzat hartzea, ondare-balioa kategorizatzeke aurrez definitutako kategoria itxien aldean.

Ondarearen kontzeptualizazio integrala egiteko joera dagoen arren, bai definizioan bai kudeaketan, ondare garaikideari buruz dagoen literatura berrikusita, ikusi da ondare arkitektonikoaren, industrialaren, paisajistikoaren edo immaterialaren azterketan oinarritu direla egindako azterketa gehienak.

- **Ondare arkitektonikoa.** Ondare arkitektonikoari dagokionez, urteak igaro ahala ikusi da balorazio-irizpide zehaztugabeagoak dituela denboran berriena den ondareak, XIX. eta XX. mendeetan joerak azkar aldatu izanaren ondorioz neurri batean. Ondare-balioa duten eraikin garaikide ugari daude gaur egun, baina erronka handiei egin behar zaie aurre haiek kontserbatzeko. Horrez gain, ondare arkitektonikoa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da ondarea zabaltzeko, herritarrei irekitzeko eta turismo kulturala bultzatzeko.
- **Industria-ondarea.** Europako eskualde askoren garapen ekonomiko eta sozialaren ezaugarri nagusietako bat izan da industriaren garapena, eta, horien artean, aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoa. Ondare-mota horrek berariazko aintzatespena behar du, ondarearen kontzeptualizazio klasikoetan garatu ez dena. Gaur egun, ondare industrialtzat hartzen dira, higiezinak, egitura arkitektonikoak edo ekoizpen-makinak ez ezik, garraiobideak, erauzte-jarduerak aldatutako paisaiak, langileen egoitzak eta beste ere. 1980ko hamarkadan hasi ziren industria-ondarea kontserbatzearekin lotutako lehen esku-hartzeak, eta, gaur egun oraindik ere, irekita dago ondare-mota hori aintzat hartzeari buruzko eztabaida. Industria-ondareari dagokionez, aztertu beharreko erronka da ondare hori industria ondoko gizartearen funtzio berrietan integratzea.

- **Paisaia-ondarea.** Gaur egungo kontua da paisaia ondare-elementu gisa ikustea eta definitzea, eta horrek paradigma-aldaketa erakusten du ondare-elementuen kontzeptualizazioari dagokionez. Ondarearen kontzeptua zabaltzeak eta lurraldeak eta paisaiak ondare bihurtzeak lausotu egiten du natura-ondarearen eta kultura-ondarearen arteko muga, elkarrengana hurbiltzen ditu biak, eta ikuspegi bateratua bultzatzen du, non ingurunea, babesteko, kontserbatzeko eta zabaltzeko elementu gisa, funtsezkoa den. Paisaia ondare-elementu gisa hartze horretan, garrantzitsua da, halaber, nabarmentzea kultura-ibilbideei bultzada handia ematen ari zaiela azken aldi honetan, bai babes- edo kontserbazio-kontuetan duten eraginagatik, bai duten erakartze-ahalmenaren eta turismoaren sustapenaren ondorioz sortzen duten bultzada ekonomikoagatik.
- **Ondare immateriala.** XXI. mendearen hasieratik formalki eta modu zabalean ondare-kategoria gisa aintzatetsia egon arren, ondare garaikidearen adierazpen batzuen ezaugarri nabarmenetako bat da immaterialtasuna. Tradizioz, ondare immaterialtzat hartu izan dira belaunaldiz belaunaldi transmititutako usadioak, irudikapenak, adierazpenak, ezagutzak, teknikak, tradizioak eta abar, garrantzi handia dutenak balorazio historikorako, kulturalerako edo komunitate baten identitaterako. Gaur egun, artea eta kultura adierazteko modu berriak ere bil ditzake kultura-ondare immaterial garaikideak, immaterialtasunarekin eta iragankortasunarekin lotuak, eta horrek berradierazi eta zabaldu egiten du ondare immaterialaren sailkapena.



4. ONDAREAREN KONTZEPTUALIZAZIO INTEGRALA

Ondare garaikidea gaur egun sortzen ari den ondarea izateak eragindako ikuspuntu faltak dakartzan erronkez gain, beste elementu bereizgarri bat da aurrera egiten ari dela ondarea modu integralean kontzeptualizatzeko bidean, ez bakarrik kultura-ondasunaren izaera hedatzeari dagokionez, baita haren babesarekin, kontserbazioarekin, bultzadarekin, hedapenarekin eta gozamenarekin lotutako kudeaketari dagokionez ere.

Agerikoa da ondarearen gaineko kontzeptualizazioaren bilakaera, eta horrek zaildu egiten du ondare garaikideari buruz definizio zehatzak ezartzea. Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera, honela defini daiteke kultura-ondarea: "iraganetik gizarteak jaso dituen ondasunen multzoa, zeinean gizarte horrek kontserbatzea eta transmititzea merezi duten balioak aitortzen dituen". Baina azpimarratzen du "kultura-balioak aldakorrek direnez, ondarearen kontzeptua bera etengabe eraikiz doa, eta hura osatzen duten elementuak ere mudakorrek dira eta ekarpen berriak hartzeko irekita daude".

Definizio horrek garbi erakusten ditu bilakaerak duen garrantzia eta ondarearen kontzeptua egokitzeko beharra, eta egokitze horretan eragin handia dute gizartearen bilakaerak eta, ondorioz, adierazpen artistikoen eta kulturalek.

Ondareari buruzko legeriaren eta kudeaketaren bilakaeran gaur egun izan den aldaketa handienetako bat da kontzeptualizaziotik eta eremuka bereizitako kudeaketatik askotariko planteamendura igarotzea. Egungo legerian jasota dagoen bezala, ondarea bere osotasunean zabaldu eta kontzeptualizatu behar da, kudeaketa integrala bermatuz, hau da, alde batetik, ondarea identifikatu, dokumentatu, ikertu, kontserbatu eta babesteko duen kudeaketa, baina horrekin batera haren transmisioa, sustapena eta balioa ematea bermatzeko konpromisoa agerian utziko duena.

Gaur egun, ondareztat hartzen diren eta ondare-balioa duten elementuen multzoa handitzeaz gain, kategorizazio horren eragina ere handitu egin da. Ondarea identifikatu, babestu eta zabaldu egin behar da, herritar

guztiei hurbildu eta ezagutzera eman, eta haren transmisioa, ezagutza eta gozamena bermatu. Gainera, azpimarratu da ondarea funtsezkoa dela, duen balio historikoagatik ez ezik, jarduera ekonomikoan duen eraginagatik eta garapen-politikan duen garrantziagatik ere.

Europar Batasunaren gomendioek ere definitzen dute Euskal legeriatik ateratzen den ondarearen kudeaketa integral hori.

Kultura Ondarearen gainean Jarduteko Europako Esparruak, 2018an zehaztu zenak, orientabide komuna ezartzen du ondarearekin lotutako jarduerak Europa mailan bideratzeko. Dokumentu horrek ondarearen kontzeptzioa integrala ezarri du, non dimentsio ukigarriak, ukiezinak eta digitalak bereizezinak diren eta elkarren artean lotuta dauden, eta 5 ekintza-ardatz nagusiren definizioan oinarritzen da:

Ondareak duen integartzeko ahalmena	Ondareak ahalmena du komunitate baten kohesioa eta integrazioa hobetzeko, eta, beraz, ondareak, oro har, eskuragarri egon behar du bere alderdi guztietan.
Jasangarritasuna	Kultura-ondareak garapen inklusiboa eta jasangarria lortzeko duen eginkizun nabarmena sustatu behar da.
Arriskuan dagoen ondarea babestea	Kontrolatu egin behar da gaur egun dagoen ondarea suntsitzeko eta hondatzeko arriskua.
Berrikuntza eta ezagutzaren eta ikerketaren mobilizazioa	Teknologia digitalek ahalmena dute ondarearekiko sarbide publikoa hobetzeko eta ondare hori kontserbatzeko aukerak zabaltzeko.
Nazioarteko lankidetzaren indartzea	Nazioarteko konpromisoa beharrezkoa da ondarea bere alderdi guztietan babesten laguntzeko.



Nazioarteko gomendioek erakutsi dute ondarearen kontzeptualizazio integralerako aurrerapauso hori. Ikusten denez, ondarearen kontsiderazioa aldatu egin da, eta gaur egun ez da memoria kolektiboaren oinarri edo ezagutza historikorako tresna gisa soilik ikusten, baizik eta gizarte-kohesiorako, identifikaziorako eta bultzada sozioekonomikorako elementu gisa.

Kulturaren ezagutza eta kulturaz gozatzeko aukera demokratizatzea da ondarearen kudeaketa integralari bereziki eragin dion elementuetako bat. Kultura eskuratzeko eskubidea ikuspegi zabalenetik hartzen da gaur egun, eta aintzat hartzen da agintari publikoek kultura herritarrengana hurbiltzeko duten eginkizuna. Horren harira, gaur egun ondare-politikak ez dira soilik ondarea lehengoratzera, babestera eta kontserbatzera mugatzen, baizik eta gizarteari hurbildu behar diote ondarearen balioa, eta herritarrek hartaz goza dezaten bermatu.

Planteamendu hori, herritarren eskubide kulturalak aintzatesteko funtsezkoa izateaz gain, baliabide ekonomiko dinamizatzaile gisa ere garrantzitsua da. Lehen aipatu bezala, ondarearen gaur egungo ikuspegi integralak barne hartzen du ondareak duen ahalmen ekonomikoa, bereziki turismo kulturala erakartzeko gaitasun handia izateagatik.

Bi irakurketa ditu ondarearen ikuspegi integral eta integratu horrek: ondare-ondasunaren kontzeptua eta ondarearen kudeaketa orokorra.

Ondare-ondasunari dagokionez, betez ere multzo gisa duen kontzeptualizazioan eragiten du ondarearen ikuspegi integralak, edukia eta edukitzailea kontuan hartuta. Gaur egun, ondare-ondasun bat babestean, gero eta gehiago hartzen dira kontuan ingurunea, dela naturala, paisajistikoa edo higiezina, eta barrualdea, batez ere arkitektura-izaerako ondasunetan.

Ondare-ondasunaren osotasuna dela eta, egiaz zaila da dituen edo inguratzen duten elementuetatik bereiztea ondasun babestua edo aintzatetsia. Horregatik, gero eta gehiago babesten da ondare-ondasunaren hurbileko ingurunea.

Ondarearen kudeaketari dagokionez, ikuspegi integratua, lehen adierazi den bezala, uztartua dago ondarea zeharkako jarduera-eremuekin lotzearekin, hala nola garapenarekin, jasangarritasunarekin, sustapen ekonomikoarekin, hezkuntzarekin, aisialdiarekin eta abarrekin.

Beraz, ondarearen kontsiderazio integralean, honako hauek nabarmendu behar dira:

<p>Ondare-ondasunean</p>	<p>Garrantzia hartzen du ondare-elementuaren ikuskera holistikoak, eta aintzat hartzen da ondasunaren edo kultura-adierazpenaren ingurunea.</p>
<p>Ondarearen kudeaketan</p>	<p>Nabari da gero eta apustu handiagoa egiten ari dela ondasunaren kudeaketan maila guztiak aintzat hartzearen alde, inplikaturako gobernantza-mailekin hasi eta jasangarritasunaren, osotasunaren eta balioa ematearen arloetan dituen inplikazioekin edo arlo ekonomikoan dituen aukerekin buka.</p>

Gaur egun, aintzat hartzen ari da ondareak hainbat esparrutan duen ahalmena, bai nazio-mailan, bai nazioartean. Ondarearen balioa handitzearen eta babestearen alde egindako jarduera ugarien artean, Garapen Jasangarriko Helburuen artean egotea nabarmendu behar da. Hala, zehazki GJHen 11.4 helmugak "munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko" beharra ezartzen du, etorkizuneko garapenean jasangarritasuna lortzeko bidean aurrera egiteko.

Gaur egun, kultura-ondareak lotura estua du gizateria osoak aurre egin behar dien erronkekin, hala nola klima-aldaketa eta hondamendi naturalak, komunitateen eta herrialdeen arteko gatazkak, hezkuntza, osasuna, emigrazioa, urbanizazioa, bazterketa, desberdintasun ekonomikoak eta abar. Hala eta guztiz ere, oro har adostasuna dago esatean kultura-ondareak garrantzi handia duela bakea, gizartearen eta ingurumenaren garapena eta garapen ekonomiko jasangarria sustatzeko, eta, hain zuzen ere, ahalmen horiek guztiak aintzat hartzearen ildotik doa kontzeptualizazio gero eta integralagoak lortzeko bidea.



Babesteko tresnak eta baliabideak

5. BABESTEKO BEHARRAK

Ondarearen kontzeptua gaur egun izaten ari den aldaketetako batzuk aipatu ditugu lehen. Elementu berriak edo sortzen ari direnak babestu behar izatetik etorritako erronkekin loturik daude batez ere aldaketa horiek, bai eta ondarearen gaineko jarduketa handitzearekin ere, babesteaz gain, ondareari balioa emateko eta hedatzeko.

Garaikidetasunaren eta gizartean izandako aurrerapenaren ondorioz, babesteko behar berriak sortu dira ondareari dagokionez, eta atal honetan aipatuko ditugu horiek.

Babes integrala

Lehen adierazi dugun bezala, ondare garaikidea gero eta lotuago dago hurbileko ingurunearekin, eta, beraz, haren babesak espazio zabalagoak hartu behar ditu ezinbestean. Ondarearen kontzeptualizazio integral horrek ondorio argiak ditu ondarea babesteari dagokionez, bi esparrutan. Alde batetik, ondare higiezina, barruan elementu higigarriak biltzen dituena, bere osotasunean hartzen da gero eta gehiago. Bestalde, osorik hartuta babestu behar da ingurunearen arabera (naturala edo kulturala) ulertzen den ondarea.

Adierazpen eta joera artistiko berriak

XXI. mendeko artea eboluzionatzen ari da, eta tresna eta metodo berriak erabiltzen hasi da, produktu artistikoak eta kulturalak nabarmen aldatzen dituztenak. Partaidetzakoa eta aktibista da XXI. mendeko artea, gizartea eraldatzeko eta gogoetarako tresna gisa balio du, baina estilo berriak ekarri ditu, estilo diskordanteak, irekiak eta kontzeptualak.

Kultura- eta arte-adierazpenetan, bai helburuetan, bai tekniketan, aurrera egite horrek babes-premia espezifiko berriak eragiten ditu sortutako obrak babesteko.

Ezaugarri horietako batzuen artean, nabarmentzekoa da arte digitalak hartu duen protagonismoa, adimen artifizialak arte-sorkuntzaren prozesuan duen potentziala arakaturik, esate baterako. Horren harira, teknologiaren eta artearen arteko sinbiosia agerikoa da joera berri askotan, baina, gainera, balioa ematen zaie arte performatiboari, izaera iragankorreko obrei, formatu desberdinetako arte kontzeptualari eta abarri ere.

Joera artistiko berriek zein digitalizaziotik etorritako aukera berriek aldaketa handia eragin dute artean erabiltzen diren euskarrietan. Aldi baterakoa, bizia eta iragankorra den horren balioa lekua hartzen ari da eta kontserbatzeko modu tradizionalak baliogabetzen. Euskarri berriak agertzeak esan nahi du birdefinitu egin behar direla artea kontserbatzeko modu tradizionalak, egungo beharretara egokitu ahal izateko.



Laburbilduz, orain arte izan ez diren artea ekoizteko modu berriak lantzen dituzten arte- eta kultura-adierazpenak babesteko modua bilatzeko beharra ekarri dute ezaugarri horiek guztiek.

Digitalizazioa eta teknologia berrien aurrerapena


Ingurune digitalean aurrera egiteak eta teknologia berriak erabiltzeak goitik behera aldatu ditu kultura-ondasunak ekoizteko, kontsumitzeko eta zabaltzeko moduak, eta ondarearen kontzeptua ere aldatu egin du horrek. Digitalaren aurrerapenak babes-premia berriak dakartza, tradizionalaz bestelakoak, baina, erronka izateaz gain, aukera handia ere bada hori.

Berriazko babes-premiak ekarri dituzte digitalizazioak eta ondare digitalaren sorrerak, aspalditik aztertzen ari direnak. Premia horiek gorabehera, aukera berriak ere ekarri ditu kontserbazioari (funts bibliografikoa, artxibistikoa, dokumentala, fotografikoa, ikus-entzunezkoa, etab.) nahiz zabalkundeari dagokienez, modu positiboan indartu baitaiteke zabalkundea.

Ondarearen babesa esku pribatuetan

Ondare garaikidetzat har litekeenaren zati handi bat, bai dituen ezaugarriengatik, bai egungo gizartearen berezitasunengatik, esku pribatuetan dago, eta horrek babestu beharra dakar. Esku pribatuetan egon arren, kultura-ondare horrek berebiziko garrantzia du gizarte osoarentzat, eta, ondorioz, arlo publikoak du ondare hori babesteko erantzukizuna. Alde horretatik, ondare garaikidea babesteko, arlo pribatuarekin koordinatzeko lankidetzak-formulak bilatzea beharrezkoa da gaur egun.

Babesteko beharrez gain, zabaldu egin behar da ondarearen kudeaketa, eta garrantzia eman behar zaio ondare hori zabaltzeari, ezagutzera emateari eta herritarrek gozatzeari. Ondareak utzi egin behar dio gizartetik urrun egoteari eta ezagutzera eman behar da, balio eta ezagutza aberasgarriak eskura daitezzen bultzatuz, komunitate inklusiboak, kohesionatuak, tolerantak, berritzaileak eta erresistenteak eraikitzen laguntzeko.



Txosten honetan nabarmendutako erronketako batzuk, ondare garaikidea babesteko behar berriak dakartzatenak, komunak dira XX. mendean zehar sortutako ondarea kontserbatzeko ere. Horren harira, XX. mendeko Ondarea Kontserbatzeko Plan Nazionalak arrasto batzuk ematen ditu era horretako ondarea babesteko beharrei buruz, eta horiek inspirazio-iturri izan daitezke XXI. mendean sortutako ondarerako ere.

XX. mendeko ondareari lotutako ondasunen kontserbazioak, bere kasuistika bereziagatik, dituen arazoei erantzuteko egin da, hain zuzen ere, plan espezifiko hori.

Alde horretatik, eta Planak justifikatzen duen bezala, materialen eta tekniken aniztasuna eta berritasuna aintzat hartuta, bai eta obra garaikideak kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzeek oinarri dituzten irizpideen berezitasuna ere, plan horren helburua da XX. mendeko sorkuntza-eremuak ikertzea, ezagutzea, babestea eta hedatzea, baita lan-metodologia bat definitzea ere, beste ondare-multzo batzuekiko bereizgarriak kontuan hartuko dituen.



Plan hori hiru diziplina-esparrutan oinarritzen da: arkitektura, hirigintza eta ingeniari-tza zibila; arte plastikoak eta argazki-, ikus-entzunezko- eta soinu-erregistroak. XX. mendeko ondarean oinarritu bada ere, eta ondare garaikide sortu berriagorik sartu ez badu ere, ideia interesgarriak aipatzen ditu ondare berriena babesteko eta kontserbatzeko premiei buruz.

Diagnostikatu den bezala, informazioaren eta kontsumoaren gizartearen eraikitze-erritmo bizkorrekin lotzen da kultura-ondare berriaren kalteberatasuna, bai eta ondareztat har daitezkeen ondasunak identifikatzeko zailtasunarekin ere, era guztietako ondasunen ekoizpena izugarri handitu delako, denbora-ikuspegiarik ez dagoelako, duela gutxi egindako ondarea baloratzea zaila delako edo gaur egun dauden komunitateekin edo kolektiboekin lotura handia duelako.

Ondare garaikidea ondare bizia eta komunitatearekin harreman handia duena izateak ez du esan nahi ondarea kudeatzeko orduan agintaritzatza tekniko eta zientifikoa desagertu behar denik; izan ere, iritzi espezializatuek funtsezko pieza izan behar dute ondasun baten balio kulturala zehazteko garaian.

Ez dago oraintsuko kultura-ondarea babesteari buruzko araudi espezifikoa askorik, baina ondarearen arloan legeria egokitzen, birformulatu edo berria egiten ari diren erkidegoek, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan bezala, ondare horren kudeaketara hobeto egokitutako legediak dituzte.

Gizarteak zenbait ondasunen ondare-balioa ez ezagutzea, babesteko beharretan ere eragiten duen arronka da. Oro har, gizarteak ez ditu zaindu beharreko ondareztat hartzen edo baloratzen azken garaian sortutako ondasun asko. Horrek zaugarritasuna ematen die eta, ondorioz, hezkuntzari eta balio emateari lotutako babes-beharrak sortzen ditu.

Ondare garaikidea babesteko behar espezifikoak

Kontserbazio espezifikoa arte-adierazpen berrietan erabiltzen diren material eta teknika berrientzat.

Ondare garaikidearen berezitasuna barne hartuko duten babes-irizpideak ezartzea.

Ondasunaren ondoko ingurunea edo, ondasun higiezina bada, barrualdea babestea.

Ondasun babestuak erabilera berriak baditu, industria-ondarearekin askotan gertatzen den bezala, ziurtatzea erabilera horiek ez dutela ondare-ondasuna kaltetuko.

Turismoarekin eta ondasunaren ustiapen ekonomiko arduratsuekin eta jasangarriarekin lotutako babes-beharrak.

Arte-adierazpen berrietara eta gizarte-balio berrietara egokitutako balorazio-irizpideak ezartzea.

Digitalizazioaren potentziala erabiltzea ondare-ondasunak babesteko eta zabaltzeko.

6. BABES-TRESNAK

Gaur egun hainbat tresna eta babes-prozedura daude edozein eratako ondarea babesteko, eta tresna eta prozedura horiek legez bermatzen dute daukaten balio eta interes kulturalagatik iraun egin behar duten elementuen kontserbazioa eta zaintza.

Ondarea aintzatestea funtsezkoa da edozein ondare-elementuren kontserbazioa bermatzeko, baina, eskuarki, legezko prozedurak ez die aurre egiten dauden behar guztiei, eta, beraz, zaila da nolabaiteko babesa behar izan dezaketen elementu guztiak ondare izendatzea.



Euskal testuinguruan hainbat **babes-maila** daude, hau da, legeriak hainbat babes-mota ezartzen ditu komunitate baten kultura-ondarea osatzen duten ondasunentzat eta elementuentzat.

Babes-maila horiek **deklarazio-prozeduren** bidez esleitzen dira, hau da, kultura-ondareko ondasun edo elementu jakin bati lege-babesa ematen dioten administrazio-prozeduren bidez.

Kultura-ondareko ondasun batek berehala lege-babesa izan dezan, **premiatzko deklarazioak** ere kontuan hartzen dira, eta **kultura-intereseko deklarazioak** ematen du legearen babes-mailarik handiena.

Ondare-elementu bati babes handiena ematen dioten elementu formalez gain, ondasun baten balioa aintzatesteak edo ebaluatzeak berak ere funtziona dezake babes-elementu informal gisa. Alde horretatik, **abiaraztea** da edozein ondasun babesteko prozesuaren lehen etapa, hau da, administrazio-izapidea hastea, babestutako ondasunen zerrendan edo erregistroan sartzeko ondasun hori.

Ondasunek interes historiko, artistiko edo tekniko nabarmena dutenean, baina gehieneko babes-maila justifikatua ez dagoenean, **inbentarioan** sartzeak berak esan nahi du ondasun hori aintzatesi dela, eta, horrenbestez, hasi egin da zenbait babes-neurri hartzeko bidea. Egia bada ere inbentarioan jasotako ondasun guztiek ez dutela babesik, inbentarioan egotea bai da arrazoi, esate baterako, delako ondasunaren ondare-balioa justifikatzeko txostenak egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden deklarazioez eta prozedurez gain, UNESCOk kultura-ondasun bat gizateriaren ondare izendatzeak bermatzen du ondasun hori mundu-mailan babestea. Deklarazioa ez da berez helburua, konpromiso baten hasiera baizik, kultura-adierazpen eta -ondasun jakin batzuek duten Aparteko Balio Unibertsalari eusteko konpromisoa, etorkizuneko belaunaldientzat uzteko.

Aparteko Balio Unibertsalaren deklarazioa aparteko garrantzi kulturala eta/edo naturala duten ondasunei ematen zaie, muga nazionalaz gaindi garrantzia izateagatik, eta, ondorioz, nazioarteko komunitate osoarentzat garrantzitsua da ondasun horiek babestea.

Mundu-mailako aintzatespen hori izan arren, bere lurraldean ondarea babesteko, kontserbatzeko, birgaitzeko eta transmititzeko betebeharra du estatu bakoitzak, baina zailtasun handiak izanez gero, nazioarteko laguntza eta lankidetzak jasotzen ditu, batez ere alderdi finantzarioari, artistikoari, zientifikoari eta teknikoari dagokienez.

Munduko ondarea eraginkortasunez babestuko eta kontserbatuko dela bermatzeko neurri zehatz gisa, Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Hitzarmenak ezartzen du hitzarmen hori berretsi duten herrialdeek ondarearen babesa sartu beharko luketela plangintza orokorreko programetan; langile egokiak prestatu eta ondarea babesteko bitartekoak eman beharko lizkietetela; ondarean esku hartzeko metodoak hobetzeko azterlan eta ikerketa zientifikoak eta teknikoak garatu beharko lituzketela; neurri juridiko, zientifiko, tekniko, administratibo eta finantzario egokiak hartu beharko lituzketela ondarea identifikatu, babestu, kontserbatu, birbalarizatu eta birgaitzeko, eta babesaren, kontserbazioaren eta errebalorizazioaren arloan prestatzeko zentro nazionalak eta eskualdekoak sortzen lagundu beharko luketela.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera, hiru babes-maila bereizi dira, ondasunak dituen kultura-balioen garrantziaren arabera. Halatan, babes berezia duten kultura-ondasunak, babes ertaina duten kultura-ondasunak eta oinarrizko babesak duten kultura-ondasunak bereizi dira, eta, gainera, babesteko hemeretzi kategoria ezarri dira (eranskinean kontsulta daitezke horiek), sei ondasun higiezin kasuan, bi ondasun higigarrien kasuan eta hamaika ondasun immaterialei dagokienez. Aurreko legerian, ondasun kalifikatuen eta inbentarioan jasotakoen artean banatuak zeuden babes bereziaren eta ertainaren mailak.

Horrez gain, ondare garaikideari bereziki eragiten dion alderdi gisa, salbuespenezkoak dira gaur egun bizirik jarraitzen duten egileen kultura-ondasunak, eta titularraren berariazko baimena behar da haiek ondare deklaratzeko.

Kultura-ondasun bat babesteko deklarazioa egitean, zehaztu egin behar da ondasun hori babesteko zer neurri hartuko diren, baina legeriak ez du gomendiorik ematen ondasun deklaratuak edo inbentarioan sartutakoak babesteko, eta horrek are arazo handiagoak sortzen ditu ondare immateriala eta garaikidea denean.



EAEko egungo legeriak ezartzen ditu ondasun bat kultura-intereseko deklaratzeko zer prozedura jarraitu behar diren, eta prozedura horiek desberdinak dira ondasunari esleitu zaion babes-mailaren arabera, hauxe da, babes-maila berezia, ertaina edo oinarrizkoa den hartzen da kontuan.

Beharreko deklarazio-prozedurak ezartzeaz gain, ondare-ondasunaren tipologia bakoitzari aplikatu dakizkiokeen babes-araubideak ere zehaztuta daude.

ONDASUN BAT KULTURA-INTERESEKO DEKLARATZEKO PROZEDURA	
Babes berezia eta ertaina duten kultura-ondasunak	Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak
1. Deklarazio-espeditenteak hastea. Espedientea hasiz gero, berehala aplikatu beharko da babesa.	1. Oinarrizko babesa duen ondasun deklaratu da udalaren hirigintza-katalogoetan sartzen denean.
2. Deklarazio-espeditentearen entzualdia eta jendaurreko informazioa izapidetzea.	2. Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen Erregistroan inskribatuko da.
3. Babes berezi eta ertainaren deklarazioa duten ondasunak erregistroan sartuko dira.	

BABES-ARAUBIDEA		
Baterakoa	Babes-mailen arabera	Tipologiaren arabera
Kultura-ondasunak babesteko araubide erkidea	Babes berezia duten ondasunak babesteko araubide espezifikoa	Ondasun higiezinak babesteko araubide espezifikoa
	Babes ertaina duten ondasunak babesteko araubide espezifikoa	Ondasun higigarriak babesteko araubide espezifikoa
	Oinarrizko babesa duten ondasunak babesteko araubide espezifikoa	Ondasun immaterialak babesteko araubide espezifikoa

Azpiratu beharreko kontua da Euskal Autonomia Erkidegoko egungo legerian garrantzi handiagoa hartu duela ondare immaterialaren kontserbazioak, azken urteotan immateriala izaten ari den aintzatespenarekin bat etorriz. Alde horretatik, bi tresna berri sortu dira, Kultura Ondasun Immaterialen Inbentarioa eta Kultura Ondasun Immaterialak Babesteko Planak, ondare hori babesteko dela ziurtatzeko.

Ondare garaikideagoari dagokionez, hala nola industria-ondareari edo kultura-inguruneei eta -ibilbideei lotutakoa (guztiak berriaz jasota daude EAEko legerian), ez da gomendio zehatzik eman ondare hori babesteko, zaintzeko eta zabaltzeko.

Horrenbestez, gaur egun zer babes-kategoria eta -tresna dauden zehaztasunez ezarrita eta jasota badago ere, oraindik zehaztu gabe dago ondare hori nola babestu behar den. Alde horretatik, onuragarria izango litzateke kultura-ondarea babesteko, kontserbatzeko eta zabaltzeko bete beharreko gutxienezko neurriak ezartzea.



Ikus daitekeenez, prozedura luzea da ondare-elementu bat babestera iristea, adostasunak lortu behar dira, eta, ondorioz, elementuak babesik gabe geratzen dira askotan. Ondare-elementuak behar bezala deklaratu eta erregistratzen direnean ere, ondasun bat ondare deklaratzek ez du zehazten zer babes-mekanismo hartu behar diren. Errealitate hori bereziki zaila da ondare immaterialarentzat edo, oro har, ondare garaikidearentzat, ondare horrek dituen ezaugarriek eta elementu berria izateak zaildu egiten baitute neurri eraginkorrak hartzea.

Aipatutako zailtasun horiek zerikusi handia dute ondarearen gaur egungo gobernantzarekin; izan ere, esparru irekiak behar ditu, ondare garaikidearen babesarekin inplikaturako eragileak kontuan hartuko dituztenak. Ondare deklaratzeko prozedura eta babes-mekanismo argiak eta eraginkorrak ezartzeaz gain, ondarea babesteko, beharrezkoa da gobernantza-eredu irekietan ere pentsatzea, barne hartuta administrazioak eta eskumen-maila desberdinak, eremu pribatuarekiko beharrezko harremana (merkatuko arauen mende), turismoarekin edo hirigintzarekin lotutako eragileen parte-hartzea, eta abar, kudeaketa-erronka berriei nahiz babes-premia berriei erantzun ahal izateko.

Gaur egun, ondarea babestea ez da bakarrik kontserbatzea eta kalteak saihestea, baizik eta ondare hori kontserbatu, zaindu, zabaldu eta ezagutarazi egin behar da, bai eta erabili eta gozatu dadin sustatu ere. Ondarea babesteko neurriek, komunitate bati datzekion eta hura definitzen duen elementu gisa, hainbat alderdi hartu behar dituzte kontuan, hauxe da, duen kultura-balioa aintzatetsi behar dute, bai eta ondasuna kontserbatu, zaharberitu eta kanpora begira ezagutarazi ere. Horren harira, ondare garaikidea babesteko kontuan har daitezkeen gomendio batzuk jaso dira ondoko taulan.

Kultura-ondarea babesteko gomendioak	
Babestea	<p>Ondare-ondasunaren babesa prebentziozkoa da, ondasuneari kalterik ez eragiteko egin daitezkeen ekintzak planifikatzen baititu.</p> <p>Ondare garaikideari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Ondare babestuan aldaketarik ez egitea. — Digitalizazioak ondare garaikidea babesteko tresna gisa duen ahalmenaz baliatzea, batez ere forma eta adierazpen artistiko berriei loturik dagoena. — Jarduera turistikoak edo merkataritzakoak ondasuna ez hondatzea. — Babesa ondasunaren ingurura zabaltzea. — Ingurumen-jasangarritasuna bultzatzeko jardunbideak egitea, ingurune babestuetan kutsadura ahalik eta gehien murrizteko. — Ikuskapen-programak erregularitasunez egitea. <p>Ondare immaterialari dagokionez, honako hauekin lotuta egon daitezke babesteko modu batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Kultura-ondare immaterialaren komunitate eramaileei protagonismoa eta bitartekoak ematea, ondare hori babes dezaten. — Ondasun higigarri eta higiezin batzuek izan dezaketen dimentsio kultural immateriala ezagutzea. — Komunitate eramaileetatik kanpoko kultura-ondasun immaterialak ez aldatzea. — Turismo-jarduerak ondare babestuaren ezaugarriak ez dituztela urratuko ziurtatzea.
Kontserbatzea	<p>Ondarearen kontserbazioa ez da jada prebentzio-neurriak hartzea bakarrik, baizik eta ondare-ondasunaren gainean jardun behar da, ahalik eta egoera onenean mantentzeko.</p> <p>Ondare garaikideari dagokionez:</p>



<p>Kontserbatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Ondasunak zaharberritzeko baliabideak jartzea. — Ondasun babestuari lotutako ingurunea zabaltzea eta kontserbatzea. — Kontserbazio-lanetan ahalik eta material toxiko eta korrosibo gutxien erabiltzea. — Delako ondasuna ikertzea eta aztertzea, egoera fisikoaren, osotasunaren edo narriadura-motaren arabera zer esku-hartze egin behar den argitzeko. — Aldaketa itzulgarriak egitea. — Aldaketa edo jarduketa guztiak esku hartzearen espediente xehatu batean erregistratzea. <p>Ondare immaterialari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Kultura-adierazpen babestuan errespetuzko parte-hartzea sustatzea, betiere komunitate eramaileei protagonismoa emanez, baina birsorkuntza eta transmisioa sustatuz. — Ondare immaterialari datxekion dinamismoa ulertzea, ondare bizia den aldetik. — Teknologia berriez eta digitalizazioaren ahalmenaz baliatzea. — Eremu publikotik sustatzea kultura-adierazpen horiek egin daitezen. 	<p>Hedapena</p>	<p>Elementu babestuak eta ondarearen beraren balioa zabaltzea funtsezkoa da herritarrek kontzientziatzeko eta, ondorioz, ondarea babesteko. Gizartea da ondarearen babesle nagusia, eta, beraz, beharrezkoa da hezkuntzarekin eta sentsibilizazioarekin lotutako ekintzak bultzatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> — Hezkuntza: belaunaldi berriak kontzientziatzea funtsezkoa da ondarearen kontserbazioa bermatzeko, eta, horrenbestez, ezinbestekoa da hezkuntza-curriculumean ondareari buruzko edukiak sartzea. <ul style="list-style-type: none"> • Kultura-ondasunak pedagogikoki zabaltzeko programak pentsatzea. • Hedapen-ekintzak egitea ikastetxeetan nahiz ondarearen ingurunean bertan. — Informazioa eta sentsibilizazioa: ondarearen balioa zabaltzeko eremu pribilegiatuak izan arren hezkuntza, beharrezkoa da gizarte osoa barne hartuko duten informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea. <ul style="list-style-type: none"> • Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea. • Errespetuzko jarduerak eta turismoa sustatzea. • Lurralde batean dauden elementu babestuei buruz informazio handiagoa ematea. • Inguruko jabekideen komunitateak eta elkarteak lotzea.
<p>Ikertzea eta ezagutzea</p>	<p>Elementu bat ikertzea eta harekin loturiko ezagutza metatzea funtsezkoa da edozein kultura-ondasun babesteko. Alde horretatik, ondare garaikidea babesteko, funtsezkoak dira honako ekintza hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Ondare-elementuak ezagutzea eta haien babes-behar zehatzei buruz bakarkako azterketak egitea. — Kultura-ondasunak zaintzera, kontserbatzera, zabaltzera eta sustatzera bideratutako profesionalen prestakuntza sustatzea, espezialisten protagonismoa areagotuz. — Gizarteari zer ekarpen egiten dion ikertzea eta ondasuna bere osotasunean ulertzea. 	<p>Erabiltzea eta gozatzea</p>	<p>Gizarte gisa dugun nortasunaren parte den herentzia da kultura-ondarea, eta, modu jasangarrian ustiatuta, lurralde baten motor ekonomiko bihurtu daiteke. Alde horretatik, beharrezkoa da ondarea herritarrengana iristea, bai norbanakoaren eta komunitatearen aberastasunagatik, bai duen iraunkortasunagatik. Ekintzak egin daitezke honako hauekin loturik:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Dagoen ondarea zabaltzea. — Ondare materialaren nahiz ondare immaterialaren adierazpenak eskura izatea. — Sustapen arduratsua eta jasangarria. — Turismo-jarduerak kontserbazio-erronketara egokitzea. — Jende guztiarentzat irekitzea.



Taula honetan jasotako gomendio guztiek hainbat puntu adierazten dituzte ondarearen babes integrala ziurtatzeko. Jasotako gomendioetako batzuk ondasunaren kontserbazioarekin zuzenean lotuta ez dauden arren, beharrezkoa da ikuspegi integralaren aldeko apustua egitea, ondasunaren babesa eta hedapena, oro har, ziurtatzeko.

7. ONDARE GARAIKIDEA EAEN


Dagokion erregistroan jasoa eta katalogatua dago EAEko kultura- eta natura-ondarea. Erregistro horrek aukera ematen du ondasun garaikideen ezaugarri garrantzitsuenetan sakontzeko, babesari eta tipologiari dagokienez. Hala ere, kultura-ondasunen erregistroa prozesu zail eta neketsua da, eta, askotan, babestu beharreko ondasun ugari biltzen ditu espediente bakar batek. Integrazio hori eta ondare-elementuari oro har begiratze hori funtsezkoa bada ere ondarea behar bezala babestuko dela bermatzeko, sarritan zaildu egiten du abiarazteko, erregistratzeko eta babesteko prozesua, eta oso zaila da lurralde batean dagoen ondarea kuantifikatzea.

Hori kontuan hartuta, eta interpretatzeko behar den zuhurtziaz, XX. mendeko ondasunen erregistrotik datozen datuak aurkeztuko ditugu kapitulu honetan. Ikuspegi kuantitatibo laburra eskaini nahi zaio EAEko ondare garaikidearen egungo egoerari, eta, horrekin batera, azken 10 urteetan deklaraturako ondasunen azterketa kualitatiboa egin nahi da. Ondarearen ikuspegi garaikidearekin lotuta daude ondasun horiek, bai eraiki ziren garaia, bai tipologiagatik (bizitegi-arkitektura, arkitektura zibila eta industrial), bai azken hamarkadetan sortutako kontzeptuak izateagatik (kultura-paisaia, industria-paisaia).

Ondare garaikidearen kudeaketaren konplexutasunak zailtasunak sortzen ditu taxonomiak planteatzean, kategoriak gainjartzearen ondorioz, hala nola industria-ondarearen eta arkitektura-ondarearen artean, ingurune zabal eta askotarikoak babestu behar izateagatik edo babes-tresna egokirik ez izateagatik.


1. grafikoak lurralde bakoitzean dauden elementu babestuen banaketa erakusten du, babes-kategoriaren arabera, eta agerian uzten du Bizkaia dela, alde handiarekin gainera, kultura-ondasun babestu gehien dituen lurralde historikoa, bai babes bereziko kategorian, bai babes ertainekoan. 2. grafikoan ikus daitekeenez, Bizkaia da, halaber, inolako babesik gabe ondasun gehien dituen lurraldea, eta XX. mendeko kultura-intereseko ondasun gehien erregistratuta dituen lurraldea da.

1. grafikoa. Gaur egun babestuta dauden XX. mendeko ondasunak, babes-motaren eta lurralde historikoaren arabera.



Iturria: geuk egina, Erregistroko datuetan oinarrituta

2. grafikoa. Gaur egun inolako babesik ez duten XX. mendeko ondasunak, lurralde



Iturria: geuk egina, Erregistroko datuetan oinarrituta




1. grafikoan ikus daiteke, halaber, gaur egun babestuak dauden ondasun gehienak ondasun kalifikatuak edo babes berezia dutenak direla, eta, ondoren, inbentariatuak edo babes ertaina dutenak (datu gehiago daude eranskinen 4. taulan). Horren harira, 3. grafikoan jaso da gaur egun babestuak dauden XX. mendeko ondasunen ehunekoa, ondasun-tipologiaren arabera.

Ondarearen ikusmoldean izandako bilakaeraren eta horrek errealitatean duen islaren berri ematen du 3. grafikoak. Arkitektura-ondasun babestu gehienak monumentu-izaerako eraikinei lotuta egon badira ere, XX. mendean ondasunen babesa nabarmen lotu da bizitegi-higiezin tipologiekin, eta horien atzetik datoz industria-eraikinak edo eraikin zibilak eta zerbitzuetakoak.

Ondasun babestuen tipologian izandako bilakaera garaikidetasunaren isla da, zalantzarik gabe. Ondarearen kontzeptua irekitzea eta tradizioz oharkabean pasa denari balio soziala esleitzea nabarmendu beharreko elementua da ondarearen egungo kudeaketan.

Ondasun babestu horiek ondasun kalifikatuak dira gehienak, hau da, egungo araudiaren arabera, babes berezia duten ondasunak, eta, ondoren, ondasun inbentariatuak daude, baina tarte handira, hau da, babes ertaina duten ondasunak.


3. grafikoa. Gaur egun babestuta dauden XX. mendeko ondasunen ehunekoa,



Iturria: geuk egina, Erregistroko datuetan oinarrituta

Gaur egun babesik ez duten ondasunen tipologiari erreparatzen badiogu (4. grafikoa), ikus daiteke gehienak bizitegi-ondasunak izan arren, babesik gabeko industria-ondasunen ehunekoa ere handia dela. Bizitegi- edo industria-ondasun ez gain, ondasun zibilen edo azpiegituren ehuneko handi batek ere ez du babesik gaur egun.

4. grafikoa. Gaur egun inolako babesik ez duten XX. mendeko ondasunen ehunekoa, tipologiaren arabera.



Iturria: geuk egina, Erregistroko datuetan oinarrituta

Bizitegien eta industriaren alorreko ekoizpena oso handia denez, ezinezkoa da dena babestea, baina, gainera, azterketa hori arretaz irakurri behar da; izan ere, ondarearen babesa kuantifikatzeko konplexutasunak aztertzeke zailtasunak dakartza, lehen esan dugun bezala.

Babestutako ondasunen artean ondare-balioa duten elementu bakan ugari daude deklarazio-espeditente bakar baten barruan. Hori da, adibidez, Vasco-Navarro trenbidearen kasua, ondasun ugari baititu (trenbideak, nasak, geltokiak, etab.), baina deklarazio-espeditente bakar baten bidez babestua dago.



Nolanahi ere, ondare garaikidea babesteak dakarren erronkaren dimentsioa ulertzeko, komeni da elementu kualitatiboak azpimarratzea. XX. mendeko ondasunen azken 10 urteetako deklarazioek, denbora-irizpidea kontuan hartzeaz gain, ondasunaren ezaugarriekin lotutako beste alderdi batzuk ere adierazten dituzte, ondare eguneratuaren kontzeptutik abiatuta. Industria-ondarea, bizitegi-arkitektura, arkitektura zibila edo publikoa, adierazpen immaterialak, kultura-ibilbideak, industria-paisaiak eta abar, elementu horiek eta tipologia horiek ez dira esplizituki aintzatetsi eta ez dute ondare-baliorik izan XX. mendearen amaierara arte edo XXI. mendearen hasierara arte. Ondasunaren beraren balioa begirada garaikidearekin ikustean, gaur egun ez da zalantzan jartzen ondare hori babesteko beharra.

Oinarri horretatik abiatuta, honako hau da Euskadin azken hamarkadan erregistratutako ondare garaikidea¹:

Euskadin kultura-ondare garaikide deklaraturako azken elementuak (2012-2022)			
Tipologia	Ondasuna	Kategoria	Zein urtetan deklaratu den
Industrialia	Matsaria kaleko 21. zenbakian dagoen eraikina	Monumentua	2022
	Bilboko saneamendu-sare zaharra	Monumentu-multzoa	2022
	«La Naval» ontziola	Monumentu-multzoa	2022
	Ormaza kontserbak	Monumentua	2020
	Mutiozabal ontziola	Monumentua	2018
	Yurrita edo Ihurrita errota	Monumentua	2015

Euskadin kultura-ondare garaikide deklaraturako azken elementuak (2012-2022)			
Tipologia	Ondasuna	Kategoria	Zein urtetan deklaratu den
Azpiegiturak eta obra publikoak	Haizearen Orraziko plaza eta eskulturak	Monumentu-multzoa	2020
	Larreinetako funikularra	Monumentu-multzoa	2014
	Igeldoko funikularra eta parkea	Monumentu-multzoa	2014
Paisaia	San Joan Gaztelugatxe	Kultura-paisaia	2019
	Barbadun ibaiaren arroko industria-paisaia	Monumentu-multzoa	2017
	Lea ibaiaren industria-paisaia (Bizkaia)	Monumentu-multzoa	2015
	Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren kultura-paisaia	Monumentu-multzoa	2014
	Añanako Gatz Haraneko kultura-paisaia (Araba)	Monumentu-multzoa	2013
Kultura-ibilbidea	Donejakue bidearen aldaketa	Monumentu-multzoa	2022
	Donejakue bidea, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzean	Monumentu-multzoa	2012

1. Eranskinean kontsulta daiteke 2012-2022 bitartean erregistratutako ondarearen zerrenda osoa.



Euskadin kultura-ondare garaikide deklaratuak azken elementuak (2012-2022)			
Tipologia	Ondasuna	Kategoria	Zein urtetan deklaratu den
Arkitektura zibila eta zerbitzuetakoa	Concepción de Elorduy y Sustacha Fundazioaren eraikina	Monumentua	2022
	Ormaiztegiko eskola zaharrak	Monumentua	2017
	Ikastetxe alemaneko gimnasioa eta kindergartena	Monumentua	2017
	Arte Ederren jauregia	Monumentua	2015
Bizitegi-arkitektura	ECAYA eskola udalekuak (Ebro Etxea)	Monumentua	2022
	Uribarteko arrapalak kaleko 3. zenbakian dagoen etxea	Monumentua	2021
	Urdinola-Arizmendienea etxea	Monumentua	2020
	Eva-Enea etxea (Aldama-Enea jauregia)	Monumentua	2017
	Munoa jauregia	Monumentu-multzoa	2017
	Villa Oyón, Martutene auzoan	Monumentua	2015
	Aguirre-Echeverría eraikuntza-multzoa	Monumentua	2015
	Portillo txaleta	Monumentua	2013
	Villanueva, El Progreso eta Babcock Wilcox herria etxebizitza merkeen sozietate kooperatiboak	Monumentu-multzoa	2012

Tipologia	Ondasuna	Kategoria	Zein urtetan deklaratu den
Militarra	Bilboko Burdin Hesia eta defentsak	Monumentu-multzoa	2019

Euskal Autonomia Erkidegoko ondare-ondasunen erregistroa aztertuz gero, zenbait gogoeta interesgarri egin daitezke:

Lehenik eta behin, azken hamarkadan aintzatetsitako ondare garaikidearen zatirik handiena paisaia-tipologian (industria-paisaiak nabarmenduz) edo industria-ondarean sartzen da. Bi tipologia horiek elementu jakin batzuen babesari dagozkio, ondarearekiko dauden begirada berrien ondorioz.

Paisaiari dagokionez, hala industria-paisaiak nola natura- eta kultura-paisaiak aintzatetsi dira. Gaur egun ondareari ematen zaion zabalkundearen balioaren eta ondareak sustapen ekonomikorako duen ahalmenaren bi adibide handi dira, zalantzarik gabe, San Joan Gaztelugatxe eta Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren kultura-paisaia, eta, gainera, argi eta garbi erakusten dituzte ondare garaikidearen kudeaketak aurrean dituen erronketako batzuk.

Lehenik eta behin, dauden babes-tresnei eta jasangarritasun globaleko arazoei lotutako erronkak planteatzen ditu paisaiak eta inguruneak babesteak. Kultura-ondare materialaren babesa tradizionalki arautuago egon bada ere, paisaia-ondarea babestea zailagoa izaten da askotan.

Ondasun babestuen hedapen eta kanpo-komunikazio onaren adibide argiak dira, halaber, bi kasu horiek (San Joan Gaztelugatxe eta Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren kultura-paisaia). Paisaia horiek modu harrigarrian eman dira ezagutzera, eta pizgarri argia dira turismo kulturalerako, bai eta erakargarri handia ere, eta zuzeneko eragina dute inguruko ekonomiaren sustapenean. Zabalkundeak onura nabarmenak badakartza ere (funtsezkoa da ondarearen ikuskera garaikiderako), erronka argiak sortzen ditu ingurunearen kudeaketa jasangarria lortzarekin lotuta.

Industria-ondareari dagokionez, elementu arkitektonikoak ez ezik, industria-jarduera jakin batzuen multzo adierazgarriak ere aintzatesten dira. Horrela, eta ondarearen ikuspegi integralean oinarrituta, industria-ondarea aintzatestek aukera ematen du ondasun higigarriak eta higiezinak, inguruneak, teknikak, jarduerak, balio historikoa eta soziala eta abar babesteko eta denboran iraungo dutela ziurtatzeko.



Industria-ondarea eta paisaia-ondarea tipologiez gain, ondare garaikidetzat har daitezke oraintsuko arkitektura (XX. mendea) eta arkitektura zibila (eskolak, bizitegiak, etab.). Erregistratutako ondasun horiek ondare-balioa duten eraikinak dira, komunitatearen egunerokoan integratuak. Aintzatespen horiek erakusten dute bilakaera handia izaten ari dela ondare higiezina eta gaur egun balio handia ematen zaiola arkitektura zibilari.

Zalantzarik gabe, Haizearen Orrazia da zerrenda honetan jasoa dagoen eta kanpoan gehien ezagutzen den ondare garaikideko elementuetako bat. Kasu honetan, aipatzekoa da ondare garaikidea aintzatesteko orduan inguruak hartzen duen garrantzia. Elementu babestua dira Peña Gancheguik sortutako plaza eta Chillidaren Haizearen Orrazia eskultura, eta babestu beharreko monumentu-multzotzat hartu da ingurune osoa.

Hiri-plangintzaren beraren gaurkotasanaren eta bilakaeraren ondorioz, izugarri ugari dira espazio publikoetan dauden artelanak, batez ere eskulturak. Haizearen Orraziaren plaza eta eskultura dira aurki ditzakegun adibide ugarien erakusgarrietako bat, eta bide ematen dute gogoeta egiteko zein garrantzitsua den espazio publikoan dagoen arte-kopuru handia ezagutzea, eta balorazio-irizpide egokiak eta, behar izanez gero, elementu horiek babesteko tresna egokituak ezartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak erregistratutako eta aintzatesitako ondareaz gain, UNESCOk aintzatesitako ondarea ere badu erkidego honek, hala nola Portugaleteko Zubi Esekia edo Donejakue Bidea.

Bi adibide horiek garrantzitsuak dira, ez bakarrik duten balio kultural eta sozial apartagatik, baizik eta erabiltzen ari den obra zibilaren eta kultura-ibilbideen adierazgarri argiak direlako, hurrenez hurren. Kultura-ondarearen kontzeptuaren ikuspegi garaikide berri horiei esker balioetsi eta babestu dira, hain zuzen ere, tipologia horiek.

Euskal Autonomia Erkidegoan deklaratu diren azken kultura-ondareen artean ez dago ondare immaterialik, lehendik deklaratu dagoelako. Hala eta guztiz ere, garaikidetasunaren erronkei lotuta dago ondare immateriala, eta, beraz, beharrezkoa da horri buruz iruzkin zehatz bat egitea.

Ondare immaterial babestuaren bi kategoria handi daude erregistroan, eta, era berean, adierazpen ugari biltzen dituzte: inauteriak eta euskal dantzak. Lehen aipatu den bezala, babes-tresna espezifikorik ez dagoenez, izugarri zaila da ondare hori kontserbatzeko, babesteko, zabaltzeko eta balioa emateko neurri egokiak hartzea. Hala eta guztiz ere, erregistroan jasoa eta aintzatesia egotea, bai eta babes bereziko kultura-ondasun gisa kategorizatzea ere, funtsezkoa da ondare hori zaintzeko.

8. INSPIRAZIO-ELEMENTUAK

Ikusi den bezala, ondare garaikidearen kudeaketak erronka partikularrak eta behar espezifikoak planteatzen ditu, orain arte hain indartsu sortu ez direnak. Testuinguru horretan, dauden babes-tresnak askotan ez dira aski sortzen ari den ondarearen babesa bermatzeko, eta xehetasun-maila handiagoa behar dute ondarearen babesa, batez ere ondare ukiezinarena, bideratzeko. Egoera horren aurrean, elementu berritzaile batzuk planteatuko ditugu atal honetan, ondare garaikidearen kudeaketaren arloan etorkizuneko ekintza-ildoak inspiratu ditzaketanak.

Kontuan har daitekeen alderdietako bat da **inbertitzaile pribatuekin elkarlanean** aritzea ondarearen kudeaketan. Horren harira, zenbait testuingurutan lankidetzak publiko-pribatua indarra hartzen ari da ondarearen kudeaketan, Italian, esate baterako.

Lankidetzak publiko-pribatua gero eta handiagoa da arlo guztietan, eta jardueramaila handiagoak lortzen laguntzen du kasu batzuetan. Sektore publikoak definitzen du interes publikoaren arloan zer helburu bete behar diren, zerbitzuek zer kalitate izan behar duten, zerbitzu horiek behar bezala betetzen direla kontrolatzen du, eta eremu pribatuak kudeaketan hartzen du esku.



1990eko Ondare Arkeologikoa Kudeatzeko Gutunean jada aurkeztutako ideia da administrazioen, ikertzaileen, enpresa pribatuen eta publiko handiaren arteko lankidetzaren ondarea babesteko. Horrela, eremu pribatuaren esku-hartzeak sor dezakeen polemikaz jabetuta, lankidetzaren pribatu mugatuko ereduak bilatzen dira ondarea babesteari begira, azken batean eremu publikoaren erantzukizuna baita hori.

Eremu pribatuarekiko lankidetzaz gain, gizartearekin, oro har, eta ondarearen tokiko komunitate eramaileekin ere elkarlana bultzatzea kontuan hartu beharreko elementua da, bai ondarea babesteko eta kontserbatzeko, bai zabaltzeko eta testuinguruan behar bezala kokatzeko.

Ondare garaikidearen kudeaketan aintzat hartu beharreko beste alor bat da **ondarea benetan eskuratzeko eta zabaltzeko politikak definitzea**; izan ere, ondarea eskuratzeko eta ezagutzeko aukera egiaz bermatzeko, ez da nahikoa ondare hori behar bezala identifikatzea eta inbentarioan sartzea. Ondarea etengabe zabaltzeko politikak aktibatzea eta informazio publikoko tresnak sortzea eta martxan jartzea elementu interesgarria da, hala ondarea herritar guztiei helarazteko, nola babes-premiei buruz informatzeko eta sentsibilizatzeko.

Alde horretatik, **adostasun soziala** da beste elementu garrantzitsua bat, egungo ondareari balioa emateko behar oso lotua. Kultura-ondarearen gaur egungo esanahiaren inguruan adostasun soziala sustatzea ezinbestekoa da ondare hori baloratzeko irizpideei buruz orientabideak emateko. Orientabide horien abiapuntua da ondarea ez dela baloratu behar monumentaltasunari eta antzinatasunari lotuta soilik.

Bilatu behar den adostasun sozialaren oinarria da gizartea kontzientziatzea ondarea zaintzeak duen garrantziaz, ez monumentu edo ondasun bakan gisa ulertuta, baizik eta lurralde eta paisaia baten zati gisa, bertan bizi diren biztanleekin loturik, bai lehengo belaunaldiei, bai oraingo eta etorkizuneko belaunaldiei begira.

Hori lortzeko, garrantzitsua da kultura-ondarearen **hezkuntza** eta sozializazioa, hezkuntza-sistema formaletik bertatik planifikatu behar dena. Irakaskuntzatik ondarea eskuratzeko aukera izateak berriazko eta zeharkako ezagutzak eta gaitasunak ematen ditu, bai eta garapen pertsonalerako eta akademikorako oso garrantzitsuak diren balio soziokulturalak hartzea ere.

Gainera, bai ondare garaikidearen beraren ezaugarriek, bai teknologia berriek eta digitalizazioak eskaintzen dituzten aukerak, **ondarearen kudeaketa adimendunaren** ikuspegi berriak eskatzen eta ahalbidetzen dituzte. Ondare garaikidearen kudeaketa berri hori bideratzeko, etengabe eskuratu eta berrikusi behar dira ezagutza zientifikoa eta teknikoa eta etengabe eguneratu behar dira ondarearen katalogoak eta inbentarioak.

Gaur egun badira ondarearen arloan egiten diren ekintzak monitorizatzeko tresnak eta gauzatu beharreko ekintzak eta haien kostuak baloratzen laguntzen duten soluzio teknologikoak. Kudeaketa adimendun eta eguneratu horri esker, etengabe egokitu daitezke babes- eta hedapen-beharrak, eta ondasun gehiago babestu eta kontserbatu.

Tresna berriez eta ondare garaikidea kudeatzeko beharretara egokitutako politikak definitzeaz gain, gaur egun, berez, **ekonomia sustatzeko** tresna da ondarea. Kultura-turismoa oso lotua dago ondarearekin, eta, ildo horretan, kultura-ibilbideak sustatzea, paisaia babesteak edo ondare-ondasunen irisgarritasunak eta zabalkundeak jarduera turistikoak sustatzen dituzte, jasangarriak eta errespetuzkoak izan behar dutenak.

Ondarearen kontzeptualizazioaren bilakaeraren eta gizartean, oro har, izan den aurrerapenaren ondorio dira elementu horiek. Harremanetarako, kontsumorako eta produkziarako modu berriek, jasangarritasun-premia berriek, testuinguru globalean dagoen interkonexioak... eragin dute ondaretzat hartzen dena eta ondarearekin elkarreragiteko dugun modua aldatzea.

Alde horretatik, ondarearen kudeaketaren ikuspegi tradizionalaren eta egungo ikuspegiaren arteko aldeak modu eskematikoan laburbiltzeak aldaketak bultzatzen ditzake politiken eta ondarearen kudeaketaren arduradunek gauzatzeko ekintza-ildoetan.



Ondarearen kudeaketaren ikuspegi tradizionala	Ondarearen kudeaketaren egungo ikuspegia
Helburuak	
<ul style="list-style-type: none"> — Kontserbatzea — Turismoari bideratua 	<ul style="list-style-type: none"> — Kontserbatzea eta balioa ematea — Kulturaren balorazioa — Tokiko biztanleriak parte hartzea
Ondasun-motak	
<ul style="list-style-type: none"> — Apartekoak eta monumentalak 	<ul style="list-style-type: none"> — Era guztietako ondasunak
Balioak	
<ul style="list-style-type: none"> — Formalak eta materialak 	<ul style="list-style-type: none"> — Ukigarriak eta ukiezinak — Sozialak — Jasangarritasuna — Paisaia
Administrazioa	
<ul style="list-style-type: none"> — Ondare-arloak 	<ul style="list-style-type: none"> — Hainbat administrazioen eta sailen parte-hartzea
Herritarrak	
<ul style="list-style-type: none"> — Ez dira kontuan hartzen 	<ul style="list-style-type: none"> — Kontuan hartzen dira, kudeaketan parte hartzen dute erabakitzeke gaitasunarekin
Ingurua	
<ul style="list-style-type: none"> — Eremu berezietan lantzen da 	<ul style="list-style-type: none"> — Kontzeptu integrala eta erradiala
Pertzepzioak	
<ul style="list-style-type: none"> — Ondasun nazional gisa baloratua 	<ul style="list-style-type: none"> — Erkidegoko eta nazioarteko ondasun gisa hartzea

Kudeatzeko teknikak	
<ul style="list-style-type: none"> — Epe laburrera 	<ul style="list-style-type: none"> — Epe luzera
Finantzaketa	
<ul style="list-style-type: none"> — Funts publikoak 	<ul style="list-style-type: none"> — Iturri publikoak eta pribatuak
Eskumenak	
<ul style="list-style-type: none"> — Zientzialariek eta adituek kudeatua 	<ul style="list-style-type: none"> — Diziplina ugari eta tokiko ezagutza



Ondorioa

UNESCOk deskribatzen duen bezala, "gaur egungo mundu interkonektatuan, argi dago gizarteak eraldatzeko ahalmena duela kulturak. Kultura-adierazpen ezberdinek, monumentu historikoekin edo museoeekin hasi eta tradizioekin edo arte garaikidearekin buka, era askotan aberasten dute gure eguneroko bizitza".

Gure iraganaren eta orainaren isla da ondarea, gizarte gisa, eta komunitate baten etorkizuna eraikitzen laguntzen du. Horren harira, ondarea kontserbatzea funtsezkoa da ondare komuna babesteko, eta erabat onartua dago kultura-ondare eta natura-ondare tradizionalenak nola babestu.

Hala eta guztiz ere, gizartearen eta adierazpen eta joera artistikoen eta sortzaileen bilakaerak ondare handia sortu du garaikidetasunari lotuta, eta erronka handiei egin behar die aurre, bai gizarteak ondare hori balioesteari dagokionez –hori beharrezkoa baita ondarea babesteari buruz kontzientzia sortzeko–, bai ondarea bera babesteari dagokionez, kontuan hartuta inguruari lotua dagoela, teknika eta tresna berrien bidez sortua dela, digitalak garrantzia duela eta, askotan, iragankorra edo ukiezina dela.

Gaur egun, ondarearen kontzeptualizazioak eboluzionatu egin du, eta, orain, multzo-elementu gisa ulertzen da ondarea, eta ondare hori kontserbatzeko, beharrezkoa da hurbileko ingurunea, barrukoa edo osatzen duten elementuen multzoa babestea. Horrez gain, ondarearen kudeaketak ere eboluzionatu egin du, eta gero eta balio handiagoa du kudeaketa integratuak, aintzat hartuta ondarearen babesa, kontserbazioa, hedapena, komunikazioa, balioa ematea eta proiektzioa, termino ekonomikoetan.

Txosten honetan ikusi den bezala, erronka berriei egin behar die aurre ondare garaikidearen kudeaketak, bai kontzeptualizazio teorikoari dagokionez (orain arte aintzat hartu ez diren ondare-elementuak gehituta), bai kudeaketari dagokionez, eremua zabaldu egin behar baitu.

Babes-tresnak batzuetan ez dira aski izaten, eta beharrezkoa da jardunbide egokiak aztertzea eta aintzatestea, babes-neurriak mugatzea, batez ere ondare immaterialarentzat, ondare-elementu bat baloratzeko irizpideak zehaztea edo herritarrak kontzientziaztea, besteak beste.

Txosten honek argia eman nahi izan dio ondare garaikidearen inguruan gaur egun dagoen eztabaidari, ondare hori bere osotasunean nola ulertu eta babestu zehazteko bidean, eta, horretarako, kontzeptuaren bilakaera teorikoa azpimarratu dugu, erronka berriak eta babes-premia zehatzak azaldu ditugu eta etorkizunean eremu horretan jarduerak egiteko inspirazio-iturri izan daitezkeen elementu batzuk jaso ditugu.



Bibliografia

UNESCO (2022ko azaroa). Patrimonio cultural. Hemen eskuragarri: → <https://es.unesco.org/fieldoffice/santiago/cultura/patrimonio>

Labadi, S., Giliberto, F., Rosetti, I., Shetabi, L., eta Yildirim, E. (2021). Heritage and the sustainable development goals: *Policy guidance for heritage and development actors. International Journal of Heritage Studies.*

Europako kontseilua (2022ko azaroa). *Herein system.* Hemen eskuragarri: → <https://www.coe.int/web/herein-system/terminology>

Europako Batzordea (2022). *Ten recommendations on how to better protect cultural heritage from the impact of climate change.* Hemen eskuragarri: → https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/en/IP_22_5353?utm_campaign=Cultura%20bajo%20radar&utm_medium=email&utm_source=Revue%20newsletter

Benedet, V. (2019). *Patrimonio residencial urbano del siglo xx: hacia un protocolo de valoración y gestión inclusiva. Casos de estudio en el país vasco.*



Eranskinak

1. taula: EAEko egungo babes-mailak eta babes-kategoriak

BABES-MAILAK	
Babes berezia	
Babes ertaina	
Babes txikia	
BABES-KATEGORIAK	
Ondasun higiezinak	Monumentua
	Monumentu-multzoa
	Gune arkeologikoa edo paleontologikoa
	Lorategi historikoa
	Kultura-ibilbidea
Ondasun higigarriak	Ondasun higigarri banakakoa
	Ondasun higigarrien multzoa
Immateriala	Kulturaren ahozko tradizioak eta adierazpenak; hizkuntza barne, kultura-ondare immaterialaren hedatzailea den aldetik, eta toponimia
	Bertsolaritza
	Musika
	Dantza
	Emanaldi tradizionalak eta oroitzapenezkoak
	Usadio sozialak
	Gastronomia



BABES-KATEGORIAK	
Immateriala	Kirola
	Jai-ekitaldiak
	Naturarekin eta unibertsoarekin lotutako ezagutzak eta usadioak
	Eskulangintzari eta industriari buruzko teknikak

2. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko Inbentarioan erregistratutako ondasunak 2012-2022

EUSKADIN KULTURA-ONDARE DEKLARATUTAKO AZKEN ELEMENTUAK			
Zein urtetan deklaratu den	Ondasuna	Kategoria	Tipologia
2022	Matsaria kaleko 21. zenbakian dagoen eraikina	Monumentua	Industrialia
	Lezetxiki aztarnategi arkeologikoa eta haren ingurua	Gune arkeologikoa	Arkeologikoa
	Arrizuriaga jauregia eta haren lorategia	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XIX. mendea
	Concepción de Elorduy y Sustacha Fundazioaren eraikina	Monumentua	Arkitektonikoa Zibila, XX. mendea
	Bilboko saneamendu-sare zaharra	Monumentu-multzoa	Industrialia
	«La Naval» ontziola	Monumentu-multzoa	Industrialia
	Donejakue bidearen aldaketa	Monumentu-multzoa	Kultura-ibilbidea
	ECAYA eskola udalekuak (Ebro Etxea)	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XX. mendea
2021	Marutegi gaztelua	Gune arkeologikoa	Arkeologikoa Herrigune militarra, VIII. mendea
	San Joan Gaztelugatxe	Kultura-paisaia	Paisaia, XX. mendea
	Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren kultura-paisaia	Monumentu-multzoa	Paisaia
	Uribitarteko arrapalak kaleko 3. zenbakian dagoen etxea	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XX. mendea



EUSKADIN KULTURA-ONDARE DEKLARATUTAKO AZKEN ELEMENTUAK			
Zein urtetan deklaratu den	Ondasuna	Kategoria	Tipologia
2020	Udaletxea	Monumentua	Arkitektonikoa Zibila, XVII. mendea
	Ormaza kontserbak	Monumentua	Arkitektonikoa Zibila, XX. mendea
	Bolunburuko Esparruko Herrixka Gotortua	Gune arkeologikoa	Arkeologikoa
	Berastegi kaleko 5. zenbakiko etxea	Monumentua	Arkitektonikoa
	Urdinola-Arizmendienea etxea	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XX. mendea
	Haizearen Orraziko plaza eta eskulturak	Monumentu-multzoa	Eskultorikoa Obra publikoak, XX. mendea
2019	Ulia parkean dauden Sorobordako eta Buskandoko ur-biltegiak	Monumentu-multzoa	Arkitektonikoa, XIV. mendea
	Donostiako Alde Zaharra	Monumentu-multzoa	Paisaia
	Bilboko Burdin Hesia eta defentsak	Monumentu-multzoa	Militarra
	San Andres eliza	Monumentua	Arkitektonikoa Erlijiosoa, XVII. mendea
2018	Eguren baserria	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XVI. mendea
	Uribarri baserria	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XVI. mendea
	Etxebarriko San Agustin eliza	Monumentua	Arkitektonikoa Erlijiosoa, XVI. mendea
	Arabako Eskualde Kantauriarreko dorreak	Monumentu-multzoa	Arkitektonikoa
	Mutiozabal ontziola	Monumentua	Industrial
	Dorletako santutegia	Monumentua	Arkitektonikoa Erlijiosoa, XVII. mendea
2017	Baltzola eta Axlor haitzuloak	Monumentu-multzoa	Natural-arkeologikoa
	Zadorra ibaiaren arroko zubiak	Monumentu-multzoa	Higiezina
	Barbadun ibaiaren arroko industria-paisaia	Monumentu-multzoa	Industria-paisaia
	Serantes mendiko gotorlekuak	Monumentu-multzoa	Militarra, XIX. mendea
	Eva-Enea etxea (Aldama-Enea jauregia)	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XX. mendea
	Ormaiztegiko eskola zaharrak	Monumentua	Arkitektonikoa Zibila, XX. mendea
	Munoa jauregia	Monumentu-multzoa	Arkitektonikoa Bizitegia-zibila, XX. mendea



EUSKADIN KULTURA-ONDARE DEKLARATUTAKO AZKEN ELEMENTUAK			
Zein urtetan deklaratu den	Ondasuna	Kategoria	Tipologia
2016	Urbina baserria	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XVI. mendea
	Ikastetxe alemaneko gimnasioa eta kindergartena	Monumentua	Arkitektonikoa Zibila, XX. mendea
	Mercadillo zubia	Monumentua	Arkitektonikoa Azpiegitura, XVIII. mendea
	Korresko gaztelua hartzen duen guneko arkeologikoa	Gune arkeologikoa	Arkeologikoa
	Beloaga gazteluko guneko arkeologikoa eta Arkaleko gotorleku-multzoa	Gune arkeologikoa	Arkeologikoa
	Villapaternako eliza-jauregia	Monumentua	Arkitektonikoa Erlijiosoa, XVIII. mendea
2015	Yurrita edo lhurrita errota	Monumentua	Industrialia
	Lea ibaiaren industria-paisaia (Bizkaia)	Monumentu-multzoa	Industria-paisaia
	Gipuzkoako Lurralde Historikoko haitzuloetako aztarnategiak	Monumentu-multzoa	Arkeologikoa
	Aguirre-Echeverría eraikuntza-multzoa	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XX. mendea
	Abaroa jauregia	Monumentu-multzoa	Arkitektonikoa Erlijiosoa, XIX. mendea
	Arte Ederren Jauregia	Monumentua	Arkitektonikoa Zibila, XX. mendea
2014	Larreinetako funikularra	Monumentu-multzoa	Industrialia, XX. mendea
	Igeldoko funikularra eta parkea	Monumentu-multzoa	Industrialia, XX. mendea
	Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren kultura-paisaia	Monumentu-multzoa	Paisaia
2013	Urtubiaga burdinola eta errota	Monumentu-multzoa	Industrialia, XIX. mendea
	Horcasitas dorrea	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XIX. mendea
	Sodupetarren jauretxea edo jauregia	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XVIII. mendea
	Portillo txaleta	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XX. mendea
	Berreagako herrixka gotortuaren eta nekropoliaren guneko arkeologikoa	Monumentu-multzoa	Arkeologikoa
	Gizaburuagako Errotabarri errota presa	Monumentua	Industria-paisaia
	Añanako Gatz Haraneko kultura-paisaia (Araba)	Monumentu-multzoa	Kultura-paisaia
	Villa Oyón, Martutene auzoa	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XX. mendea



EUSKADIN KULTURA-ONDARE DEKLARATUTAKO AZKEN ELEMENTUAK			
Zein urtetan deklaratu den	Ondasuna	Kategoria	Tipologia
2012	Zirianoko San Joan Ebanjelariaren eliza	Monumentua	Arkitektonikoa Erlijiosoa, XV. mendea
	Altzibarko teileria	Monumentua	Industrialia, XIX. mendea
	Villanueva, El Progreso eta Babcock Wilcox herria etxebizitza merkeen sozietate kooperatiboak	Monumentu-multzoa	Arkitektonikoa Bizitegia, XX. mendea
	Oñatiko Hirigune Historikoa	Monumentu-multzoa	Paisaia
	Areatza I haizuloa (mugaketa berria, deskribapen berria eta babes-araubide berria)	Monumentu-multzoa	Naturala
	Artxuako San Sebastian eliza	Monumentua	Arkitektonikoa Erlijiosoa, XV. mendea
	Zabalate multzoa gune arkeologikoa	Monumentu-multzoa eta gune arkeologikoa	Arkeologikoa
	Atxorrotzeko gazteluaren gune arkeologikoa	Monumentua. Gune arkeologikoa	Militarra
	"Puente Palacio" jauregia edo Gordogana jauregia	Monumentua	Arkitektonikoa Bizitegia, XVIII. mendea
	Donejakue bidea, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzean	Monumentu-multzoa	Kultura-ibilbidea

*Tonu ilunagoan nabarmendu dugu txostenean ondare garaikide gisa aztertutako ondarea.



3. taula: Interes bereziko kontzeptuen glosarioa

BABES-MAILAK	
Kultura-intereseko ondasunak	Ondasun bat kultura-interesekotzat deklaratzeko, ezaugarri historiko, artistiko, zientifiko edo tekniko jakin batzuk izan behar ditu, dituen ezaugarri horiengatik ondasun horren babesa interes publikokotzat jotzeko.
Ondasun higiezinak	Lekuz aldatu ezin diren ondasunak. Higiezinaren berezko ondasunez edo hari lotutakoez ari gara (xedearen araberako ondasunak).
Ondasun higigarriak	Dauden higiezinari kalterik egin gabe leku batetik bestera garraiatu edo lekuz aldatu daitezkeen ondasunak.
Ondasun babestuak	Kultura-interesa izateagatik babesteko edo kontserbatzeko neurriak dituzten ondasunak.
Interes kultureko deklarazioa	Espanian, kultura-ondasun higigarri edo higiezin batek lege-babes handiena izateko prozedura.
Premiazko deklarazioa	Kultura-ondareko ondasun batek lege-babesa berehala izateko prozesua.
Kultura-interesekotzat deklaratuak elementuak	Kultura-interesekotzat deklaratzeko, elementu batek ezaugarri historiko, artistiko, zientifiko edo tekniko jakin batzuk izan behar ditu, dituen ezaugarri horiengatik elementu horren babesa interes publikokotzat jotzeko.
Elementu inbentariatuak	Interes historiko, artistiko edo tekniko nabarmena duten elementuak, baina kultura-intereseko deklaratuak izateko adinako babes-maila justifikatzen ez dutenak.
Inguru babestua	Eraikin babestu baten ondoan dagoen lorategia, patioa edo lursaila, edo eraikinari edo haren aretoei dagokiena.
Abiaraztea	Kultura-ondasun bat babesteko prozesuaren lehen etapa da, eta, azken batean, nolabaiteko lege-babesa ematen dio ondasun horri, eraldatzearen edo eraistearen aurrean. Horrekin batean, aldi baterako babesa dakar. Prozesua abiarazteak, normalean, berekin dakar ondasuna zerrenda batean edo beste prozedura sinplifikatu batzuetan sartzea.
Aldeko txostenak	Babestu nahi diren monumentuei buruzko testu monografikoak eta dokumentu grafikoak. Delako monumentuaren kontserbazio-egoerari, inguruari eta oraingo eta etorkizuneko erabilerei buruzko informazioa ematen dute.



BABES-MAILAK	
Zerrenda adierazlea	Estatu kide bakoitzaren lurraldean dauden eta Munduko Ondarearen zerrendan sar daitezkeen kultura- eta natura-ondasunen inbentarioa. Zerrenda adierazlean sartzeari nahitaezko baldintza da Munduko Ondarearen Zerrendan sartzeko. Munduko Ondarearen Batzordeak zerrenda adierazleak 5-10 urteko tartean eguneratzeko eskatu die estatu kideei. Zerrenda adierazlearen analisiak aukera ematen du zerrenda horietan ageri diren ondasunen aparteko balio unibertsala ebaluatzeko, eta aukera ematen du, halaber, Munduko Ondarearen Zerrendan gutxi edo batere ageri ez diren ondare-motak zehazteko.
Ondasun babestuen zerrenda	Babes-sistema bati lotutako ondasunen zerrenda.
Babes-mailak	Legeriak kultura-ondareko ondasunentzat ezartzen dituen babes-motak.
Ondarea	Iraganetik jasotako ondasunen multzoa, ondare komuna. Honako hauek hartzen ditu barne: arkeologikoa, antropologikoa, arkitektonikoa, artistikoa, nazionala, bibliografikoa, zientifikoa, kulturala, Estatukoa, dokumentala, etnografikoa, etnologikoa, flubiala, fotografikoa, historikoa, industrialak, immateriala, ukiezina, intelektuala, itsasokoa, militarra, monumentala, higigarria, nazionala, naturala, paisajistikoa, babestua, erlijiosoa, labarretakoa, landakoa, urpekoa, teknikoa, hirikoa.
Deklaratzeko prozedura	Kultura-ondareko ondasun bati lege-babesa ematen dion administrazio-prozedura.
Ondareari balioa nabarmentzea	Era askotako jardueren programa (argitalpenak, erakusketak, erakustaldiak), jendearen arreta erakartzeko, elementu edo ondare-mota bat hobeto ezagutzeari begira.

4. taula: Gaur egun babestuta dauden XX. mendeko ondasunak, babes-kategoriaren eta ondasunaren tipologiaren arabera.

Tipologia orokorra	Babes bereziko kultura-ondasuna	Kalifikatua	Babes ertaineko kultura-ondasuna	Inbentarioan sartua	Guztira	%
Zehaztu gabe		3		0	3	0,41
Zibila eta zerbitzuetakoak	0	87	3	6	96	13,01
Hiri-espazioak eta urbanizazioa		10		0	10	1,36
Industrialak	3	100	5	35	143	19,38
Azpiegiturak	0	39	1	1	41	5,56
Militarra eta/edo defentsakoa		4		0	4	0,54
Industria aurrekoa		4		2	6	0,81
Erlijosoa	1	25	2	2	30	4,07
Bizitegiak	1	385	2	17	405	54,88
Landakoak – Nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak		0		0	0	0,00
Guztira	5	657	13	63	738	100

